



A U T O N O M I A

IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO
PROPOSAMEN
POLITIKO-INSTITUZIONALA

PROPOSITION
INSTITUTIONNELLE-POLITIQUE POUR LE PAYS BASQUE

A U T O N O M I A

IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO
PROPOSAMEN
POLITIKO-INSTITUZIONALA

PROPOSITION
INSTITUTIONNELLE-POLITIQUE POUR LE PAYS BASQUE

AURKIBIDEA

0.- SAR HITZA	5
I.- EUSKAL HERRIA-FRANTZIA, GATAZKA POLITIKO ETA HISTORIKOA	6
A) Frantziar estatuaren jarrera Euskal Herriarekiko : ukazioa eta zanpaketa	7
- Ukazioa, iraultzaz geroztik datorren konstantea	
- Frantziar Alderdi Sozialistaren “engaiamenduak”	
- Frantzia, gatazkaren eragile	
B) Eskumen zabaleko instituzioa : mugimendu abertzalearen aldarrikapena	8
- “Autonomia” proposamena (1993)	
- “Euskal Herria eraikitzen, etorkizunerako hautabidea” (1996)	
- “Euskal Herria eraikitzen” (2002)	
C) Hamar urteetako “kontzertazio” bide baten bilana	9
- Pays Basque 2010 eta Garapen Kontseilua. Kontzertazioa	
- Departamentuaren aldeko dinamika eta Batera	
D) Aski da ! Asimilazioari buru egin behar diogu. Euskal Herria aitzina !	11
- Pays Basque 2020 desmartxa zaharberritua	
- Aski da! Fase berri baten eraikitzen hasi behar dugu	
- Oinarrizko erreferentzia : Nazio Garapen Biltzarraren Institutio Taldearen proposamena (2004)	
- Burujabetasunaren bidean, Ezker Abertzalearen Proposamen Politikoa	
II.- ALDAKETA GARAIA DA. AITZINA BEGIRAKO PARIOA : EUSKAL HERRIA ONARTU-ERRESPETATU !	13
A) Estatu frantsesa : krisian den estatu jakobino eta koloniala	13
- Estatu frantsesa : jakobino eta koloniala	
- Estatu frantsesa : krisian den estatua	
- Departamentua bezalako egiturak zaharkituak	
- Estatu frantsesean diren Nazio ukatuen borrokak : Polinesia, Kortsika, Kanakia,..	

B) Egungo ukazioa eta estatu-quoaren gainditzearen beharra	17
- Ipar Euskal Herriko egoeraren larritzeari buru egin behar zaio	
- Sektore zabalaren eguneroko beharrak	
- Sasi eskaintzen muga objektiboak	
C) Gure geroa : Herriaren borroka eta Herri Eraikuntza	20
- Borroka eginez behartu genuen Estatu sasi-tresnen bidea idekitzera	
- Lizarra-Garazin Eraikuntza Nazionala urratzen hasi ginen	
- Herriak behar dituen tresnen eraikitzea posiblea da : EHLG	
- Herri eskubideen gauzagarritasuna Europan : Irlanda, Montenegro	
III.- PROPOSAMEN POLITIKO-INSTITUZIONALAREN IZAERA ETA GAKOA	22
A) Proposamena Euskal Herriko Prozesu Demokratikoaren logikan kokatzen da	23
B) Proposamena, Independentziari buruzko bidean, trantsiziorako urrats gisa ulertzen dugu, hortarako gutieneko aldarrikapenak bilduz	24
C) Proposamenak, eguneroko arazoei aterabidea emaitako, ezinbestekoak diren eskumenak, ahalmen ekonomiko eta botere politikoa aldarrikatzen ditu	24
D) Proposamen politikoa jendarte eredu berri baterako tresna izanzen da	24
IV.- IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO AUTONOMIA	24
A) Frantziar Estatuak Euskal Herriaren existentzia aitortu behar du	25
B) Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa barnebiltzen dituen eskumen zabaleko Institutio bat behar dugu : AUTONOMIA bat	25
C) Euskal Herriko Autonomiak berezko botere publikoak behar ditu : exekutibo eta legegilea	26
D) Euskal Herriko Autonomiak Eskumen koadro nahikoa izan behar du	26
E) Euskal Herriko Autonomiak Euskal Herriaren barne artikulazioa edo ahokatzea zehaztuko du	31
F) Euskal Herriko Autonomiak Frantziar eta Europar institutioekiko harremana aurreikusiko du	33
V.- ONDORIO GISA	33

SAR HITZA

Garai bereziak bizitzen ari gara Euskal Herrian. Bi Estatuetik dugun gatazka politikoaren bilakaeran, aldaketa sakonen atarian aurki gaitzkeenaren sentsazioa dugu. Hau ez da hutsen emaiten den sentsazioa, errealtatean eta urteetan egin borroka bidearen emaitzaren gainean emaiten dena baizik.

Horrela, Anoetan ezker abertzaleak egin proposamenaren ildotik¹, bidea egiten hasi eta Prozesu Demokratiko baten inguruan ari gara euskal eragile gehienak. Euskal Herria existitzen da. Euskal Herriak du hitza eta erabakia, eta Estatuak hori onartu eta errespetatu behar dute. Azken finean, gure nahia, sentsibilitate politiko guztiak beren proiektuak gauzagarri izaitzeko aukera emanen duten koadro politiko eta instituzional demokratikoak sortzea da.

Anoetatik hona, gatazka gainditzeko prozesu baten abiatzeari begira egin diren entseguen aitzinean, Frantziak ez du nihundiko nahikeriarik erakutsi, Euskal Herriarekin duen auzi historiko horren konpontze bidean. Alta, Frantzia gatazkaren parte aktibo denez, goiz ala berant, arazoaren parte izaitzeari utzi eta soluziobidearen parte izaitera pasa beharko du, gatazka politikoaren behin betiko eta erabateko gainditzeari atek idekiz.

Estatu frantsesa Euskal Herriaren onarpen eta errespetu eremurat mugiarazi beharko dugu. Hain xuxen ere hori da proposamen honen zentzua : Parisen aitzinean gure herriaren onarpena eta errespetua finkatuko duen koadroaren oinarriak zehaztea.

Ipar Euskal Herrian fase politiko bat bukatu da. Euskal Herria 2010 eta Lurralde Antolaketa Eskematik heldu den "kontzertazio" bide hau, funtsean, Ipar Euskal Herriaren onarpen politikoaren saihesteko ildoa besterik ez da izan. Baterak kontsultaren alde burutu berri duen izenpedura biltze kanpainak, behin eta berriz, Ipar Euskal Herriko herritarrek haien geroaz erabaki nahi dutela agerian utzi berri duelarik, estatua ukazio ildo honen luzapena prestatzen ari zaigu Euskal Herria 2020 protokoloaren lanketarekin. Ezker Abertzaleak argiki dio, ezin dugula onartu Herri honek ukapenean oinarritu beste ziklo baten iragaita.

Ataka honetatik atera behar dugu, bestelako fase politiko bati atek idekiz. Horretarako gauzak perspektiban ezarri behar ditugu, Estatu frantsesa Euskal Herriaren onarpenaren eremurat mugiaraztea lortzen dugunerako, gure Herriaren funtsezko arazoari erantzunak eman ahal izaitzeko balio dezala bederen.

Izan ere, Parisen ukapen jarrera bortitzaren ondorioz, hiru herrialdeetako herritarrek arazo larriak pairatzen dituzte hainbat alorretan : enplegu, etxebizitza, nola arlo sozialean etab... Ipar Euskal Herriaren errealtatetik abiatuz, proposamen honen funtsa da hain xuxen ere, arazo guzi horiei erantzuten hasteko beharrezkoak genituzkeen botere eremuak definitzen hastea.

Perspektiba honetan, ezker abertzaleak bere proposamen politikoaren egiteko beharra ikusi du. Argi dugu ez garela hutsetik abiatzen. Azken hiru hamarkadetan Ezker Abertzaleak, bere aniztasunean, urrats frango eman baitu Ipar Euskal Herrian. Horiatarik

¹ **Anoetako adierazpena** : 2004ko azaroaren 14ean, Donostiako Anoetako Belodromoan, 15.000 jenderen aitzinean, Batasunak gatazka gainditzeko proposamena aurkeztu zuen. Sintesian, proposamen horrek bi elkarrizketa esparru aurreikusten ditu : bata, Estatuak eta ETArekin artekoa, gatazkaren ondorioetatik hitz egiteko, eta bestea, euskal eragile guztien artekoa, egungo egoeratik abiatuta, Euskal Herriaren eta herritar guztien eskubideen errespetuan oinarritutako egoerara eramango gaituen ibilbidea adosteko. Guzti honetatik, euskal herritarrek izan beharko dute azken hitza, herri galdeketa bidez.

zenbait zatiketa eta urradura ekarle izan dira. Haatik, lan honekin gibelerat begiratzeaz gain, hemendik aitzina urratu behar dugun bidez aritu nahi dugu, iraganeko akatsetarik atera irakaspenak oinarri gisa hartuz. Azken funtsean deus berri asmatu gabe, emandako urrats guzien junta egin nahi dugu hemen, egungo testuinguru politiko eta sozialean proiektatzeko.

Ondoko orrietan, ezker abertzalearen hausnarketa aurkezten dugu :

Alde batetik, zein den azken hamarkadetan gatazkaren testuinguruan izan diren jarrerak eta zein diren egungo egoeran eragiten duten elementu nagusiak. Hor hainbat ondorio atera ditugu : fase berri bat ireki behar dela, borrokan oinarritua, asimilazio politikari buru egiteko; fase berri horren oinarria Euskal Herrian kokatu behar dugula eta ez Frantziaren uestezko nahikaria onean; eta urrats hori emaitza beharrezkoa izaitzez gain, egingarria dela.

Honen ondoan, aurkezten den proposamen instituzionalaren funts politikoa azaltzen da : haren izaera demokratiko eta trantsitorioa azpimarratuz, eta zein den, finean, egiten dugun proposamen instituzionala bera, eskumen zabaleko instituzioa : Autonomia.

Gogoeta prozesuaren ondorio gisa aurkezten dugun proposamen hau ez da bururaturik edo hertsirik den zerbait, kontrakoa baizik.

Euskal jendartean eta abertzale eremuan sentitzen den gogoeta egitearen beharrari erantzun bat baizik ez da. Erantzun idekia. Hemen agertzen diren gogoeta eta irizpideen gainean mintzatzeko, eztabaidatzeko eta ekarpenak egiten segitu beharko da, bai Ezker Abertzalean berean, bai beste eragile edo gune zabaletan.

Euskal Herrian abian den Prozesuaren testuinguruan, Ipar Euskal Herriari buruz ere mintzatu eta hausnartu behar dugu euskal eragile guztiek. Gure errealitatearen arabera "tempus"etan, baina norabide berdinean : Euskal Herrian hitza eta erabakia eskuratzearen ahalbidetzea.

Erran bezala, fase berri bat ireki behar da gure Herriaren aitortzaren aldeko borrokan, eta proposamen hau bidea irekitzen laguntzeko tresna eraginkorra izanen delakoan gaude. Proposamen hau, bertan zehazten diren ardatz eta irizpideak, abertzale guziak eta gure Herriaren gehiengo bat egin eta aurkitu gaitezen, oinarria osatzen duela uste dugu.

Borroka eta engaiamenduaren bidean dugu hitzordua.

I.- EUSKAL HERRIA-FRANTZIA, GATAZKA POLITIKO ETA HISTORIKOA

Euskal Herriak, historian zehar, herri gisa duen izaera berezian oinarriturik, dagokion burujabetasun politikoaren erdiesteko ahaleginak egin ditu, etengabean.

Borroka luzea izaiten ari da, eta molde anitz ezagutzen ditu garai historiko eta hauen uneko ezaugarri berezien arabera. Euskal Herria etengabeko borroka-ariketan ibili da : uneoro egoerak hausnartu, faktore ezberdinak kondutan hartu, eta aitzina egiteko erabaki zuzenak hartzen entseatu. Hortarako, ezinbesteko kapitala izan du Herri kontzientzia eta herri antolaketarako eta borroka egiteko erakutsi duen ahalmena.

Historian zehar Euskal Herriak inbasio eta eraso guzietan buru egin behar izan die. Borroka guzi hauen oinarrian, bere bizimolde eta instituzio bereziaren alde, bere askatasunaren alde eginak izan zirela agertzen zaigu, Amaiurko oroigarriak ongi adierazten digun bezala.

I.- GATAZKA POLITIKO ETA HISTORIKOA

A) Frantziar estatuaren jarrera Euskal Herriarekiko : ukazioa eta zanpaketa

Ukazioa, iraultzaz geroztik datorren konstantea

Libertatearen ohakoa izan zen 1789ko Frantses Iraultza, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako euskaldunendako eskubide kolektiboen urratzaile izan zen, euskal nortasunaren irense. Geroztik, frantses Estatuaren eremuan ofizialki ez dago frantses populuz besterik.

Alta, euskal populua nazio kontzientzia ez zen apaldu, Uztaritzeko Garat anaien segidan aldarrikapen instituzionala plazaratu baitzuten : Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa barnebidu behar zuen Departamentua. Berantago, Joseph Garatek beste proposamen hau egin zuen : Euskal Herriko zazpi lurraldeek bat egin zezaten frantses erresumaren gerizapean egonen zen herridi batean. XIX. mendean zehar, indarrean zen departamentuaren aldaketaren eskaera konstante bat bilakatu zen.

Ukazio jarreraz gain, Estatu frantsesak aspaldidanik konfrontazio posizio bat atxiki du Euskal Herriaren kontra. Hori argiki erakutsi digu, 1980 hamarkadatik gaur arte eraman gaituen ibilbide historikoak.

Frantziar Alderdi Sozialistaren “engaiamenduak”

Laurogei hamarkadaren hastapenean, diputatu sozialista talde batek, euskal departamentuaren aldeko proposamena aurkeztu zuen, Frantziar Asanblada Nazionalen zera adieraziz : *“Kondutan hartuz Frantziako euskal populuari bere duintasuna eta kultura itzultzeko den beharra, bere gazteei Herrian bizi eta lan egiteko eskubidea emateko, lurralde honen berezitasunak aintzat hartuz, Alderdi Sozialistak beharrezkoa jotzen du Euskal Herria izena hartuko duen departamentu berri baten sortzea”*.

1981ean, François Mitterrand, Frantziako Lehendakariaren hautagaiak, euskal departamentuaren sortzea eta euskararendako estatusa bere kanpaina proposamenen artean kokatuak zituen. Haatik, hauteskundeak irabazi eta berehala bere hitza jan zuen. Euskal Herriaren onarpenaren aldera urratsak emateko ordez, 1982tik landa, hautatu berria zen Felipe Gonzalez Espainiako lehendakariarekin, Euskal Herriaren kontra gerra estrategia zehazten hasi zen.

Azken finean, euskal aldarrikapenei kasu egite horren gibelean ez zen asmo zintzorik. Nahikaria bestelakoa izan da beti frantziar agintarien eta tokiko jauntxo-sukurtsalisten aldetik : Herri mobilizazioaren bidez erdietsi giroaz baliatzea hauteskundeetan irabazteko, eta bide batez, herri aldarrikapenaren eta honen presioaren indargabetzea erdiestea. Frantziar jarreraren konstantea : ondoan jarri, grina apaldu eta indargabetu, eta asimilazio prozesuan sakondu.

Frantzia, gatazkaren eragile

Gatazka politiko bat beti molde anitzetan agertzen da. Konfrontazio armatua – Estatuaren eraso edo Herriaren defentsarako - horren islaren molderik gordinena bada ere, ezin dira ahantzi bere iturria ukazio bortitzean izan duten hizkuntza, kultura, erakaskuntza edota lurraren inguruan ezagutu ditugun borroka gogor eta luzeak. Adibide oso zehatz eta eza-guna emanez, hor ditugu urteetan Seaskak emaniko borrokaldi eredugarriak.

Horrez gain, aipatu dugun François Mitterrand eta Felipe Gonzalezen arteko elkarlanetik heldu da 80 hamarkadaren zehar GALen gerla zikina. 1983-an, Segundo Mareyren bahiketaren entsegua eta Lasa eta Zabalaren bahiketa eta hilketa basatiarekin hasi zen GAL, eta

1983-1987 artean, bere ekintzek 27 hildako eragin zituzten.

ETAren kontrako "gerla zikina"z gain, Estatu frantsesaren gerra estrategiak beste fronte bat zuen Iparretarrak erakundearekin. Erakunde armatu horrek jarduera indartsua ezagutu du 80 hamarkadan, gure herriaren defentsan hainbat alorretan ekintza andana burutuz : espekulazioaren kontra, turismoaren kontra, etab. Buruz-buruko horretan ere, Estatu frantsesaren jarrera oso bortitza izan da, IK-ko hainbat militanteren erahiltzerainokoa : Popo Larre, Didier Lafitte, Maddi Heguy,...

Estatu frantsesarekiko gatazkak ziklo desberdinak ezagutu ditu eta 80eko hamarkadan ukan zituen adierazpen bortitz eta ikusgarriak azken 10 urteetan ikusi ez baditugu ere, Parisek ez du bere jarrera aldatu. Besteak beste, azken 10 urte hauetan, errepresioaren inguruko datu guziak gainditu izanak (operazio poliziala, atxiloketa eta presoen kopuru "historikoak") hori frogatzen du.

Azken urteetan, Euskal Herritik kanpo forma guzien zaintzen entseatzeko bada ere, posizio hori sobera azaleratua izan ez dadin, Parisek euskal gatazkaren eragile eta erantzule zuzena izaiten jarraitzen du. Ukazioa eta mespretxua ditu ikur nagusiak.

B) Eskumen zabaleko Instituzioa : mugimendu abertzalearen aldarrikapena

IKren "Autonomia" proposamena (1993)

Laurogei hamarkadan zehar eginiko borroka azkar eta ausartaren bidez, instituzio baten inguruko galderak indar berria hartu zuen hiru herrialdeetako jendarrean.

IK.k urratsa eman zuen proposamen bat publiko eginez 1993an, eta "Eraikitzen" kolektiboak, 1994an, hainbat eragileen ekarpenak jaso ondoren, jendarteratze lana abiatu zuen. Proposamen horrek bere gordintasun eta argitasun guziarekin euskal arazoa plazaratzen zuen. Arazoa ongi identifikatu, arrazoiak non diren argitu eta burujabetzaren bidean uneko urratsa zein izan behar zuen zehaztu.

Trantsizio gisa argiki definitzen zen autonomia koadroa, ahalmen edo eskumen askirekin. Ipar-Hego (IK-ETA) eztabaida eta ezadostasun estrategikoek, besteak beste, anitz baldintzatu zuten denbora hartako eztabaida politikoa eta haren eraginkortasuna, eta arazo hauen ondorioz ez zen arras zabaldu eta garatu haren potentzialitate guziarekin. Frantziar Estatuaren jarrerak eginen zuen bestea.

"Euskal Herria eraikitzen, etorkizunerako hautabidea" (1996)

Euskal Herriko Ezker Abertzaleko eragileen koordinaziotik (Euskal Batasuna, Ezkerreko Mugimendu Abertzalea, Herriaren Alde, Herri Batasuna) sortu proposamen politikoa dugu hau.

Egun bezala, egoerak "bidegurutze" baten irudia hartzen zuen abertzaleentzat, eta Frantziaren aldetik "Pays Basque 2010" gogoetaldiak hartzen zuen protagonismoa. Horren aitzinean ezker abertzaleak etorkizunari begirako gakoak non ziren identifikatu eta instituzio baterako oinarriak definitu zituen.

Proposamenak, ezker abertzalearen helburu estrategikoak "bideratzeko oinarriak segurtatzen" zituen. Zera zioen : "Haatik gaurko egoeratik hara, tarteko faseak ezagutuko ditugu, euskal instituzioarena besteak beste". "Herri gisa bizirik irauteko eta nazio eraikuntza posiblea izan dadin, ezinbesteko baldintzak biltzen ditu. Halaber, Ipar Euskal Herriko hainbat arazo konpontzen hasteko norabideak proposatzen ditu".

I.- GATAZKA POLITIKO ETA HISTORIKOA

Oinarriak hauek ziren : Lurraldetasunaren ezagupena, euskararentzat ofizialtasuna, hegoaldearekiko harremanak, eta estatuaren errepresioa amaitzea.

“Euskal Herria eraikitzen” (2002)

Batasunak Itsasun aurkeztutako proposamena da. “Kontzertazio”an oinarritutako “Pays Basque 2010” fasearen krisiaren aitzinean, eta Frantziar Estatuan emaiten ari zen deserdiratzeari buruzko espektatiben aitzinean sortua.

Departamentuaren inguruko zikloa agortutzat eman, eta agerian zen Parisen mespretxuaren aitzinean, eraikuntza nazionalean oinarritu estrategian kokatzen den proposamena da. Euskal Herriak bere bidea egiten hasi behar du Frantziaren ukazioari eta honen mugei kasu egin gabe.

Gako nagusiak : Euskal Herriaren aitortza, autodeterminazio eskubidea, lurraldetasuna, euskal herritartasuna.

C) Hamar urteko “kontzertazio” bidearen bilana

Euskal Herriaren eskarien aitzinean, frantziar Estatuaren jarrera ardatz hauen gainean eraikia izan da : Euskal Herriaren aitortza saihestu, indarren asimilatze eta indargabetezko sasi eskaintzak egin, giroa baretuz, eta jendarte sektore aktiboekiko errepresioa.

Pays Basque 2010 eta Garapen Kontseilua. Kontzertazioa

1988-an François Mitterrand, frantses Estatuko lehendakari hautatua izan zen bigarren aldikotz. Usaian bezala, haren bigarren mandatua preso batzuk amnistiatur hasi zuen. Amnistia neurri horiek zenbait militante independentista hunki zituzten : Guadalupekoak, Kortsikakoak,...

Halaber, nazio “arazo” zenbaitzuren inguruan mugimendu batzuen egiten hasi zen Estatu frantsesa. Urrats horiek ekarriko dute besteak beste, autodeterminazio eskubidea onartzen duen “Matignoneko akordioa” Kanakyarekin (1988an) eta estatutu berri bat - “Statut Joxe” delakoa - Kortsikarentzat (1991an).

Euskal Herriari doakionean, Pierre Joxe orduko barne ministroak elkarrizketa ziklo bat ideki zuen 1989tik goiti. Elkarrizketa bideak tokiko eragile anitzekin burutu zituen. Biziki inportantea da oroitzea elkarrizketa ziklo horren testuinguruan sortuko direla gerora, 1993-an “Euskal Herria 2010” ekimena eta Garapen Kontseilua. Finean, zer da beraz Euskal Herria 2010ekin abiatzen den bide hori ? Hainbat arduradun politikok aitortzen duenez (horien artean adibidez, Christian Sapède suprefeta ohiak edota Alain Lamassourek), bide hori da, Estatu frantsesak garai hartan Ipar Euskal Herrian zen “bortizkeria arazoari” (IKen jarduerara alegia) eskaini dion erantzuna.

Bide hori ontsa ezaugarritzekotan, kondutan hartu behar da lehen-lehenik, 1989an hainbat euskal herritar askatuak izan baziren ere, Mitterrandek bere bigarren mandatuaren hastapen hortan bozkarazi zuen amnistia legetik kanpo utzi zituela euskaldunak. Gisan berean, beste nazio “arazo”en kasuan urrats politikoak eman bazituen ere, Euskal Herriarentzat gisa hortako urrats baten emateari uko egin zion Parisek. Hori da beraz, gaur arte Estatu

frantsesak atxiki duen bere “marra gorria” : Hiru herrialdeen lurraldetasuna finkatzea ekar dezaken edozein motako Ipar Euskal Herriaren aitorten politiko-instituzionalik ez onartzea. Eta hain xuxen ere, onarpen politiko-instituzional horren saihesteko asmotan emanen dira Euskal Herria 2010 protokoloaren lerroan etorriko diren beste urrats guztiak. Sujeto politiko baten ukazioa atxikitzearen xedearekin, “kontzertazio” sasi bide hori elikatu du azken 10 urte hauetan Parisek.

Pays Basque 2010 desmarxaren nahikariari buruz, bi adibide oso zehatz aipatuko ditugu. Zera diote horren sustatzaileek : *“Hautetsien Kontseilua Euskal Herriko etorkizuna bermatzen duen erakundea da”*. Beraz, aholku edo iritzi emaiteko ahalmen soilak duen “erakundea”k gure Herriaren etorkizuna “bermatzen” du. Eta beste hau : *“Euskal Herria 2010 xedean oinarriturik, Euskal Herriak hiru gaitasun berriri ateak ideki dizkio : Ikuspegi-eskubi-dea (droit de regard), bideratzearen betebeharrak (devoir d’orienter), eta eraikitze gogoia (désir de construire)”*.

Lan prospektiba horretan abertzaleak ere buru belarri sartu ziren. Arrazoina : onartuak gara eragile gisa, kontzertazioa eskaintzen da, abertzaleek bertan izan behar dugu gure ikuspunduen emaiteko, tren horretan igo behar da.

Alta, 2003an abertzaleek dimisioa aurkeztu zuten, euskal departamentuaren gaia, besteak beste, eztabaida ezina bilakatu baitzen. Krisia sortu zen, bainan baretu zen eta Frantsesek gogor atxiki zuten abertzaleei kasu eman gabe. Alabainan, Garapen Kontseilua abisu edo aholku baino ez denez, ongi da abertzaleak han lan egiten badute, aniztasunaren irudia erakusten delako, bainan hortan ez baldin badira ere ez die axola.

Paradojikoki, hauxe azpimarratu behar dugu : Estatuaren sasi-bide honek, ukazioa bermatzeko sortua bada ere, ezin du saihestu bere “eragite” eremua Ipar Euskal Herrikoa izaita. Beraz, saihestezina egiten zaio Euskal Herriaren afirmazio maila bat garatzea.

Departamentuaren aldeko dinamika eta Batera

1997ko azaroan, Abertzaleen Batasunak euskal departamentua eta euskararen ofizialtasunaren aldeko kanpaina baten abiatzea deliberatu zuen. Ondorioz, euskal departamentuaren inguruan bereziki, indar metaketa zabala erdietsiko da (1999ko urtarrilean ABren manifestazioa, urriaren 9an Ehunen Deiak deitu manifestazioa,..).

Mobilizazio horietan parte hartzea emendatzen joanen den hein berean, abertzale mugimendutik at kokatzen diren sektore zabalak Frantziako gobernu ezberdinen jokamolde immobilistaz jabetuko dira. Dinamika horren harian, euskal lurraldearen kontzientzia garatzen doa, Instituzioaren aldarrikapena euskal lurraldeari lotua izanen baita.

Mobilizazio eta euskal jendarteraren kontzientzia hartze mailak lekuko hautetsiak mugitzera behartuko ditu. Mugimendu guzti horiek Ipar Euskal Herriko klase politikoan lurrikara eta berrosatze prozesu bat idekiko dute. Frantzia mailako alderdi politikoek ez dute erantzuten euskal jendarteak galdegiten duen posizionamendu mailari, eta ondorioz hainbat lekuko politikari umezurtz sentituko dira, alderdien diziplinatik kanpo edo atxikimendu/esteka berezirik gabe.

Garai hartan Ezker Abertzaleak Euskal Departamentuaren aldeko dinamikan parte hartu zuela ohargarri da. Parte hartze taktiko horren helburua Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioaren eztabaida jendarteratzea eta ahal bezain bat sektore Frantziako agintarien jarrerarekin buruz-burukora bultzatzea izan zen. Ohargarri da geroztik une hartan aldarrikapen taktikoa baizik ez zen euskal departamentua, gero helburu estrategiko saihestezina bilakatu dela ezker abertzaleko hainbat sektoreen begietara. Haatik, ezker abertzalearen

I.- GATAZKA POLITIKO ETA HISTORIKOA

eta oro har abertzaleen aldarrikapenen maila batere eskumenik gabekoa den Frantziako egitura administratibo baten aldarrikatzera apaldu izanak ez du emaitza zehatzik ekarri, Frantziako Gobernuak berean tematurik jarraitzen baitu.

2002 urte hondarrean Batera plataforma sortzen da, lau aldarrikapen formalki uztartzuz (departamentua, euskararen ofizialtasuna, Laborantza Ganbara, eta Unibertsitatea), eta alderdiak bigarren mailan geratuz, kidego pertsonalaren eta herri elkarten alde eginez. Euskal departamentuaren aldarrikapenak guziaz baldintzatuko du.

Gehiengoaren logikaren izenean, sektore zabalen atxikimendua erdietsi zuen "Euskal Presoak Euskal Herrira!" aldarrikapena baztertu zen, horrela lau aldarrikapenen bilakaera indarrean den gatazkaren parametrotarik kanpo kokatuz.

Dinamika zabal horrek azken urteetan Frantziaren pareta hunkitu du. Gutieneko onarpena emaitzeko nahikaria eza eta mespretxu erabatekoa da. Honek, euskal departamentuaren aldeko mugimendua bidegurutze batean utzi du, eta Bateraren bidez, plataforma osatzen duten mugimendu guziaz ere.

Berrikitan burutu den sinadura bilketak agorpenaren berrestea besterik ez du ekarri. Berriz agerian gelditu da denek dakiguna : arazo politiko bat badela, Euskal Herrian eta ez Biarnon, eta mespretxuak hor segitzen duela. Baita ere bildu indarra eraginkor bilakatu behar dela. Orain urratsa eman behar da, jauzia. Ezker Abertzaleak parametro horietan kokatu zuen bere inplikazio maila : aipatutako argazkia berrestea eta Bateran diren sektoreen aitzinean jauziaren beharra agerian uztea, oraingo fasea gaindituz.

D) Aski da ! Asimilazioari buru egin behar diogu. Euskal Herria eraiki !

Pays Basque 2020 desmartxa zaharberritua

Frantziaren egungo estrategia Euskal Herriarekiko argia da : aitzineko "Pays Basque 2010" zikloaren logikari jarraituz, beste ziklo bat - "Pays Basque 2020" - ideki nahi du, osagai bertsuekin, baina abiapuntua, maila apalago batean ezarriz :

- sasibideen bigarren ziklo bat ideki nahian (Euskal Herria 2020 gogoeta, Hitzarmen Berezia II, sasi-tresnen sortzea,..)
- euskal lurraldetasunaren kontrako ofentsiba (Lasserren egitasmoa barnekaldeko "lobby"arekin; EPFLren eremua; Bil ta Garbirena...)
- populazio emendatze iragarpenean (30.000 lagun) eta horren ondorio larriak (kultura, hizkuntza, lurra, azpiegiturak)
- errepresioa (borrokan aritzen diren sektoreen aurka, baina baita afirmazio dinamiketan inplikatzeko diren sektoreen aurka ere : Laborantza Ganbara, Instituzioaren aldeko hautetsiak...).

Frantziako gobernuak euskal jendarteak senditzen duen aldaketa beharrari bere erantzuna eman nahi ukan dio, beste behin Frantziako administrazioaren deszentralizazioaren baitan desagertaraziz. Berriz ere luzapen fase batean ito eta desitxuratu nahi ditu euskal aldarrikapenak. Estatuaren logikan ezarri nahi dute berriz jendarte eta baita abertzale indarrak ere, asimilazio ziklo berri bat idekiz. Ekimen horrekin desaktibazio politikoa erdietsi nahi dute Estatuaren inizatibaren baitan eztabaida eta indarrak kokatuz.

Bere jarrera politikoa ez da aldatu azken urteetan, eta ez du inolako aitortza politikorik egiteko asmorik. Gainera, aitzineko fasean baino abiapuntu apalagoetatik abiatzeko xedea duela diru-

di, orain arte baino gutiago emanez Ipar Euskal Herriari. Lekuko eragileen aldetik, horrek “dugunaren” defendatzeko tentaldia eragin lezake.

Aski da! Fase berri baten eraikitzen hasi behar dugu

Euskal Herriko etengabeko galderei Frantziak betiko jarrerarekin erantzun die. Oraingo saiakerak (PB 2020) ez du aitzinekoa bezainbat arreta piztu, baina ukazioaren bide itsu beretik nahi gaitu eraman. Horren aitzinean ez du balio agorturiko dinamiketan itotzen segitzea. Ez du balio gure Herri gisako ukazioa bermatzeko ezarriak diren legeen errespetuan eskaera gehiago egitea. Gure bidea egin behar dugu Frantziaren aldetik deusen beha egon gabe.

Unea heldu da beste proposamen baten egiteko, unea heldu da “Pays Basque 2020”ren jukurtia berriaren aitzinean urrats zehatzak eta Euskal Herriaren egiazko beharrei begirakoak egiteko.

Oinarrizko erreferentzia : Nazio Garapen Biltzarren Instituzio Taldearen proposamena (2004)

Raffarinen deserdiraketaren testuinguruan, mugimendu abertzaleen aldetik (EA), EA, AB, Batasuna, Matalaz, Eraiki), ahots amankomun batekin interpelatu beharra sentitu zen. Horrela, sentsibilitate politiko desberdinetako jendea, ordezkari gisa, hasi zen biltzen.

Dinamika horren emaitza oinarrizko irakurketa eta instituzio baten behararen aldarrikapena bildu zen txosten batean. Aberri Egunaren bezperan plazaratu zen idatzia. Indar abertzale desberdinen artean oinarrizko adostasunen finkatzearen bertutea du, aktibo politiko garrantzitsu bat osatuz.

Proposamen adostu hori Nazio Etabaida Gunean² aurkeztua eta onartua izan zen. Horren kari, Nazio Garapen Biltzara³ eratu denean, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoaren instituzioari begirako azpibatzerdea sortu zen. Idatzia oinarri gisa hartu zen, horren arabera jendarteratze eta garatze lana egiteko.

Berezko Instituzioaren inguruko hausnarketak, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoari begirako debate instituzionala ez dela Departamentuarekin bukatzen agerian uzten du. Departamentua baino haratagoko bidea marraztearen bertutea du. Berezko Instituzioaren inguruko aldarrikapenak arazo instituzionala ikuspegi abertzale batetik planteatzeko aukerak eskaintzen ditu:

- Estatu frantsesari begira alde batetik. Azken urte eta erdian Kongsultak antolatutako ondorengo, nazio arazoak dauden lekuetan estatutu politiko berezituak eskaini ditu Estatu frantsesak : Kortsika, Guadalupa, Martinika. Departamentuaren aldarrikapenak Ipar Euskal Herriko “gehiengoaren” eskaria izatearen zilegitasunean oinarritzen dute. Gure zilegitasuna Herri bat izatetik dator. Beraz ez dago

² *Nazio Etabaida Gunea* : 2003ko udan sortutakoa. Euskal Herri osoko esparru anitzeko jendeak osatzen du, maila pertsonalean. Denen artean, Euskal Herriaren egoeraren gaineko diagnostikoa egin eta Herri ikuspegi batetik, garatu beharreko lehenetsitasun nagusiak markatu egiten ditu. Lehen Etabaida Guneetik sortu ziren Gatazka Konpontzeko Batzordea eta Nazio Garapenerako Biltzara.

³ *Nazio Garapen Biltzara (NGB)*: Nazio Etabaida Gunearen gogoetatik sortutako tresna da. Euskal Herriak bizirauteko dituen arazo larrien aitzinean, Euskal Herria aintzat hartzen duten eragileen artean, bakoitzaren talde estrategiaren gainetik, izan behar den Herri gisako eraikuntza estrategia etabaidatu, erabaki eta lan ildoak finkatu eta garatu egiten du.

II.- ALDAKETA GARAIA DA

arazorik Nazio bat garen heinean, Estatu frantsesak menperaturiko beste Herriei proposaturiko koadro instituzionalak aldarrikatzeko.

- Euskal Herriari begira bestetik : berezko instituzioaren aldarrikapena nazio erai-kuntzan aitzin urrats bat emateko helburuarekin planteatua da. Hau da, bereziki aldarrikapen honek ahalbidetuko lukeena da Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoako herrialdeek beren geroa eraikitzen hastea, Euskal Herriko beste herrialdeekin harreman esparru instituzional bat antolatuz.

Burujabetzaren bidean, Ezker Abertzalearen Proposamen Politiko-Instituzionala

Frantziaren ukazio eta sasi bide asimilatzaileen aitzinean, euskal herritarrei Proposamen politiko berri baten egiteko eta garatzeko garaia da, egun bizi dugun “impasse” politikoa-ren hausteko, gatazkaren egiazko oinarriak eta honen gainditzeko egiazko gakoak zein diren argiki erakusteko, euskal nazioaren eraikuntza horrela segurtatuz.

Proposamen politiko honekin ezker abertzaleak fase politiko berri bati eman nahi dio has-tapena, orain arteko departamentuaren aldarrikapenean oinarritutako eta agorturiko fasea gaindituz. Bide batez, Euskal Herriaren ukazio sistematikoan oinarritutako sasi eskaintza pozoinduen bide itsua hetsi nahi dugu, euskal nazioaren burujabetasuna oinarri duen ins-tituzio baten alde pario argia eginez, independentziarantz tresna eta bidea izan dadin.

Proposamen politiko-instituzional honek, ikuspegi autokritiko batetik eta begirune osoz, iragan hurbilean ezker abertzalearen proposamen ezberdinetan hoberenak nahi ditu berreskuratu, konbentzituak garelako horiek markatzen dituztela segitu beharreko bidea-ren erreferentzia nagusiak.

Gure Herriaren egoera zailak ekimen zintzoak eta ausartak eskatzen ditu. Proposamen hau agian ez da izanen euskal herritarrek dituzten arazo guzien konponbiderako tresna bikaina, baina zalantzarik gabe ahalegin garrantzitsua da, egun Prozesu politikoaren testuinguruan emaiten ari diren beste hainbat ahaleginekin batera Euskal Herriaren nazio eta jendarte askapenaren zutoin sendoa bihurtuko dena.

II.- ALDAKETA GARAIA DA. AITZINA BEGIRAKO PARIOA : EUSKAL HERRIA ONARTU-ERRESPETATU !

A) Estatu frantsesa : krisian den estatu jakobino eta koloniala

Estatu frantsesa : jakobino eta koloniala

Estatu frantsesaren ezaugarriak azaltzeko tenorean, lehen-lehenik Europako eremuan geldit-zen den estatu zentralizatuenetariko bat dela azpimarratu behar da. Datu hori biziki grafikoki agertzen da bere antolamendu eredua, inguruan dituen estatuarekin konparatzen denean. Alabaina, Estatu espainola eskumen deszentralizatuen inguruan antolatua den “autonomien” estatua da. Italian, ibilmolde autonomo bat aitortua da hainbat tokitan (Valle d’Aosta, Friuli-Venezia Giulia, Sardegn...). Suitza, 23 kantonamenduen inguruan antolatua den “estatu kon-federala” da. Gisa berean, Alemania botere zabalak dituzten 16 “Lander” ez osatu “estatu fede-rala” da. Belgikak ere, Wallonia eta Flandria bereizten dituen Estatu “federalizat” jotzen du

bere burua. Azkenik, Britainia Handian, Eskozia, Gales eta Ipar Irlandari autonomi estatusak aitortuak dizkio.

Usu ahantzia bada edo/ta frantses elite intelektualek datu hau ixiltzen badute ere, zentralismo jakobinoarekin batera, bere izaera koloniala da Estatu frantsesa ezaugarritzen duen bigarren funtsezko elementua. Frantses expansionismoari lotuak diren izen "mitikoen" zerrendak (Charlemagnekin hasiz, Napoléonetik pasatuz...), adierazten duen bezala, elementu horrek erro historiko zaharrak ditu. Ibilbide kolonial horrek bi norabide segitu ditu. "Barne" ibilbide bat, "konkista" ezberdinei esker Hexagonoaren mapa marraztu duena: Languedoc, Savoie, Britainia, Nafarroa, Kortsika, Alsace-Lorraine etab. Eta "kanpo" ibilbide bat, III. Errepublikak, Frantziari aitortu zion "zibilizazioa" zabaltzeko egin behar horren estakuruarekin, 5 kontinenteetan 60 kolonia baino gehiagoz osatu inperio baten eraikitzaera eraman duena 18. eta 19. mendeetan zehar.

Hainbat Herrik frantses kolonialismoaren atzaparretatik askatzea erdietsi dute. Horien artean bereziki aipatzekoak dira, 20. mendeko hainbat nazio askapen mugimenduentzat eredu garriak izan diren Vietnam eta Algeriaren independentziaren aldeko borroak. Bainan Frantzia estatu koloniala da oraino. Era zuzen batean lehenik, Hexagonoaren baitan (Britainia, Euskal Herria, Kortsika, Okzitania, Altsazia...) eta munduan zehar hainbat nazio frantses Estatuaren menpe baitira oraino (Polinesia, Kanakia, Martinika, Guadalupa, Guyena, Réunion). Eta zeharka bigarrenik, Parisek eragingune zabala atxikitzen baitu munduan zehar eta berezikiago Afrikan (20 estatu baino gehiagok parte hartzen dute "Afrika-Frantzia" gailurretan). Gainera, kolonizazioaren eragin positiboen inguruan berriki (2005eko otsailean) aurkeztua izan den lege proposamenak adierazten duen bezala, frantses elite politikoek eta intelektual gehienek ez dute nihundiko xederik politika kolonial horren "zilegitasuna" kolokan ezartzeko.

Estatu frantsesa : krisian den estatua

Elementu anitz daude frantziar Estatuak bizi duen krisia islatzen dutenak.

Estatu anitzen eritasuna pairatzen du : sistema kapitalistan, garaian estatuei ematen zitzaien funtzioaren zaharkitzea. Egun, ekonomia kapitalistaren garapenerako, estatuen barne mugak gainditzen dituen eremu/anitez zabalagoak ezinbestekoak dira.

Europako eraikuntzari begira, partaide diren estatuak beren barne egituratzea berrikusi beharra dute. Orain arte zituzten funtzioen murrizketari buru egin behar (zerbitzu publikoen kalterako, besteak beste), eta estatuaren pisua (aurrekondei doakionez) arinduko duen egituratze instituzionala zehaztea dute helburu. Boterearen eta eskumenen lekualdatzea bi norabidetan gauzatzen ari da : alde batetik, Europako instituzioetara, eta bestetik, eskualde edo erregioetara.

Horrekin batera, Europako estatuen artean lege eta araudien harmonizazioa erdiesteko xedearekin, eskubide sozialak murrizteko joera da nagusi. Argigarria da ikustea nola harmonizazio hori ez den gertatzen langileen eta herritarren eskubideak gehien bermatzen dituzten estatuak legedien arabera, baizik eta kontrako zentzuan.

Frantziaren kasuan, estatuaren sortzea Herrien eskubideen bizkar egin den heinean, egun indarrean diren herri aldarrikapenak eta estatuaren kudeaketa eremuetan indarrean den ikuspegi erdirakoiak, berregituratze instituzionalerako nolabaiteko mugarri dira.

Europako egituratzeari begira, Frantziako gobernuak estatu egitura administratiboa berrikusteko prozesua abiatu du. Bere baitan ikuspegi ezberdinak badira ere, horiek ez dute zerikusirik herri zanpatuekiko jarreran, baizik eta jendarte-ongizatearen adierazgarri diren hainbat ezaugarrien desagertzearekin.

Haatik, Raffarinek kudeatu deserdiratze prozesua Kortsika begirako elkarrizketa prozesuaren garai berean gertatu denez, eskuineko Gobernuak Frantziako Konstituzioa berrikusteko teno-

II.- ALDAKETA GARAIA DA

rean, Kortsikaren bilakaera instituzionalari begira adostu akordioa ahalbidetzeko hainbat moldakuntza interesgarri erantsi zituela ohargarri da. Alde batetik, Frantzia barneko eskualdeei herri iritziak antolatzeko gaitasuna hobesten zaie. Bestaldetik, lurralde eta eskualdeen egituratze instituzionalerako aukera zabalagoak arautzen ditu. "Lurralde Elkargoaren" izendapenarekin, eskumen biziki zabalak barnebil ditzakeen instituzionalizaziorako bidea idekitzen da. Jendarte-ongizatearen oinarrien eraispena eragiten duten lege aldaketen aitzinean, Frantziako herritarrek eta sindikatu nagusiek, greba eta mobilizazio ugari egin dituzte azken urteetan. Zerbitzu publikoen eraispen politikak Frantzia barnean lurralde eta eremu ezberdinen arteko desoreka eragin du. Zerbitzu publikoen kudeaketarako printzipio gorena errentagarritasuna bilakatzearekin, hirigune nagusietatik kanpoko zerbitzuen sarea desegituratzen ari dira. Beste gisa batez bada ere, prekaritatean bizi diren herritarrak biltzen dituzten hiri nagusietako auzuneetan zerbitzu publikoen eraispenagatik arazoak biderkatzen dira. Halaber, sexu-genero desberdintasunak gainditzea helburua omen duten politiken eraginkortasuna ahultzen ari da. Tarte horretan, Europako hitzarmena hobesteko erreferendumean gehiengo aurka azaldu da. Hau ez da kasualitate bat. Funtsean, Hitzarmenaren gauzapean eskubide sozialen eraispenean eta sexu-genero ezberdintasunean sakontzea baizik ez bailuke eraginen.

Krisi sakon baten adierazgarri diren gertakari hauek guztiak itxuraldatzeko eta estaltzeko, urteak dira Gobernu ezberdinak beren hautabide guziak diskurtso sekuritarioan oinarritzen ari direla. Atzerritar eta gazteen kriminalizazioa eta oinarritzko eskubideak urratzen dituzten lege aldaketak (Perben legeak, Sarkozy legeak...) dira besteak beste kultura sekuritarioaren adierazgarri nagusia.

Departamentua bezalako egiturak zaharkituak

150 urte baino gehiagoko ideologia batean sustraituak diren bi zango horien arabera (zentralismo jakobinoa eta inperialismo koloniala) funtzionatzen segitzen duen estatuaren egitura nahiko zaharkitua agertzen ari da krisi honen aitzinean. Hain sakona den krisiari buru egitearen premiak Estatuaren erreforma saihegaitza bilakatu duela erran genezake. Maila horretan, hainbatek VI. Errepublikara pasatzeko beharra planteatzen dute. Alabainan, V. Errepublikak 50 urte baino gehiago dituela kondutan hartuz (1958-an ezarri zen indarrean), baitezpadakoa den Estatuaren erreformak erregimen aldaketa baten forma har dezake. Horrekin edo/ta horren baitan, estatu eredu zaharkituaren aldaketak, dezentralizazioaren bultzada berri bat ekarriko duela pentsa daiteke.

Izan ere, sozialistek 1982an eman zuten deszentralizaziotik landa, urrats berri guti izan da zentzu horretan. Geroztik, deszentralizazio lerro baino "deskonzentrazio" ildo bat landua izan da. Hau da, eskumenak deszentralizatu ordez, eginbehar batzuk transferitu zaizkie tokiko kolektibitateei, horiei lotua den fiskalitatea Estatuaren eskutan utziz, horren kontrol politikoa atxikitzeko gisan. 2002an boteretat heldu bezain laster Raffarinnek erran zuen iragarri deszentralizazioak bide hori segituko zuela.

Edonola ere, azpimarratzekoa da, Raffarin dezentralizazioaren inguruan izan eztabaidek, argi utzi dute, deszentralizazio urrats erreal bat egiteko orduan, Estatuaren antolamenduan arrunt zaharkitua ageri den maila departamentuarena dela. Izan ere, saihestezina ageri den Estatuaren erreformaren baitan, bihar dezentralizazio urrats bat ematekotan, norabide bikoitz batean emanen da : erregioak eta herri elkargoen boterearen areagotzearen norabidean. Departamentua erabat desagertzen ez bada, bere eremua, gainerako instituzioek haren gain utzi nahiko duten eremu "hertsia" izanen da, eragin egituratzaile gutikoak (omen) diren eginbeharrek osatzen dutena hain xuxen ere (baserri eremua, RMI bezalako laguntza sozialak, bideak...)

Estatu frantsesean diren Nazio ukatuen borrokak : Polinesia, Kortsika, Kanakia...

Geroari begirako perspektibak zehazteko orduan, beti da interesgarri zapalduak diren beste herrien esperientziez jabetzea. Anitz dira gainera Estatu frantsesaren menpe diren Herriak. Horien artean:

Kanakia. Ohartu behar dugu frantses Errepublikak, bere menpe duen Herri bati autodeterminazio eskubidea aitortzen diola. Hala nola, eskubide hori aitortu eta 10 urtetako epean gauzatu egin behar zela onartzen diote Kanakiari, 1988ean izenpetu "Matignoneko" akordioek. 1998an, autodeterminazio ariketa berantago egitea onartu zen (2014-2019ko urteetan), eta akordio berrien bitartez - "Nouméako Akordioak" Kanakiar Herria aitortu eta Autonomia estatus berri batetaz hornitu da, azken honek tokiko zuzenbide komunitarioan oinarritu instituzioak plantan jartzen dituenean. Gaur-gaurkotz, bai estatus politikoari begira, bai Herri gisa erdietsi aitortzan, aitzinatuen den Herria dugu Kanakia (enpleguari loturiko zuzenbidea edota kanpo komertzioa bezalako eskumenak bere gain ditu).

Polinesia, Tahiti. 1984ko eta 1996ko estatusen ondotik, 2004ko otsailean Autonomia estatus berri bat - "loi organique portant statut d'autonomie" - martxan ezarri da Tahitin. Estatus berri honek Tahitiri onartzen dizkion eskumen berrien artean dira nazioartean ordezkaritza propioa ukaiteko eskubidea, edota lur eta ondare kulturalari doazkion eskumenak. Tahitiko Biltzarrak, arauak bozkatzeaz gain, zenbait eremutan - besteak beste lurralde antolaketa - "herri legeak" ("loi de pays") delakoak bozkatzeko ahalmenak ditu.

Kortsika. Azken 25 urteetan estatus aldaketa desberdinak izan dira Kortsikan. Lehen estatusa 1982an eman da. Orduko barne ministroak, Pierre Joxek, estatus berri bat proposatzen du 1989an. Estatus berri horretan, lehen artikulua Kortsikar Herriaz zekarren onarpenaren inguruan bere betoa ezarriko du frantses epaitegi konstituzionalak. Érnac Prefetaren kontrako ekintzak sortu gorabehera politikoei eraginik ("affaires des pailotes" delakoa besteak, beste), 1999tik goiti, Jospinen gobernuak negoziazio prozesu berri bat hasiko du Matignonen Kortsikarekin. Eskuina botererat itzuli ondoan 2002an, N. Sarkozy barne ministro berriak segida emanen dio Matignoneko prozesuari. 2003ko urtean, erreferendum bat antolatzen da Kortsikako estatus politiko berri bati buruz. Erreferendumaren emaitzetan, ezezkoa nagusituko da alde tipiko batekin.

Martinika eta Guadalupa. 2003an, lege konstituzional batek, "DOM" (Département d'Outre-Mer) delakoak desegiteko eta eskumen zabaleko Lurralde Kolektibitate berri baten sortzeko aukera berria eskaini du. Azpimarratu behar da, "DOM" delako hauek jada estatus berezi dutela. Besteak beste Europar Batasunean onartua den "erregio periferiko" baten estatusa aitortua zaie. 2003ko urtearen bukaeran, Lurralde Kolektibitate berri baten aldeko erreferenduma burutu da, ezezkoa nagusitu delarik.

Hainbat ondorio ateratzen ahal ditugu frantses Estatuaren menpe diren Herri horien ibilbideaz :

- Herri horien estatus politikoek hainbat aldaketa ezagutu dituzte azken urteetan. Maila horretan, salbuespenak dira adibidez Guyana eta Reunioneiko kasuak. Hemen, borrokaren balioa agerian gelditzen da. Hain xuxen ere, egoera dinamikoak - hots, aldaketa gehien ezagutu dituzten egoerak - atxemai-

II.- ALDAKETA GARAIA DA

ten dira borroka bide tinkoa hautatu duten Herrien kasuetan: Kanakia, Kortsika, Polinesia...

- Autodeterminazioa eta bere nazio eskubideen aitortzan gehien aitzinatua den Kanakiaren kasuak Estatus politikoaren garapenean burujabetzari buruzko bidea Autonomia irabaztetik urratzen dela argi erakusten digu.

Ondorio horiek, beste Herrien borroka esperientzietatik irakaspenak ateratzearen beharraz haratago, elkarlanaren balioa ere azpimarratzerat eramaiten gaituzte. Bide honetan, beste urrats bat eman berri dugu, 2006ko agorrilean hainbat mugimendu independentisten artean izenpetu den Corti-ko agiriarekin⁴.

B) Egungo ukazioa eta estatu-quoaren gainditzearen beharra

Ipar Euskal Herriko egoeraren larritzeari buru egin behar zaio

Azken hamarkadan, herri gisa gibelerat egin dugu zalantzarik gabe. Herria egiten duten zutoin estrategikoei so eginez, egoera biziki kezkarria da. Aipatu dugu zein den Estatuaren jarrera Euskal Herriarekiko. Ukazio-asimilazio politika horren ondorioak begi bistan ditugu :

Euskararen egoerak kezkarria izaiten segitzen du : azken inkesta sozio-linguistikoak erakutsi datuak eta etorkizun iluna, eragileen ahultasun egoera eta desaktibazio mailak, estatuarekiko jartzen diren itxaropenak (nahiz eta berrikitan ikusi dugun Frantziako Asanblada Nazionalaren jarrera ukatzailearen berreste argi eta mingarria eman den),... egun ez da euskaragintza dinamika iraunkor eta sendorik. EEPtik⁵, asmo politex haratago, ez da egiazko bermerik emaiten eta gehiago iduri du itxura egiteko gisa erabiltzen den zerbait dela. Herrietan den kontzientzia desaktibatzen doa emaiten den "irudia"rekin eta praktikarekin: instituzio borroka soil gisa ikusten da. EEPren sortzearekin, berriz ere, euskararen garapenak eta indar euskaltzaleak, ezinbestekoa duten hizkuntzaren ofizialtasuna ukatzen duten horien kontrolpean atxiki eta asimilatzeo entseguan dira.

Lur eta etxebizitza mailan, azken urteetan presio izigarria eman da (etxebizitza kopuruan, %15 baino gehiagoko emendatzea azken 9 urteetan), eta horrek ekarri du lur prezioaren igotera handia, espekulazioa... Lurraldearen arteko desoreka da horren emaitza, lurra ez da jada herritarren esku baizik eta kanpotiarren esku, eta horrek baditu ondorioak maila sozio-ekonomikoan zein sozio-kulturalen. Etxebizitzari dagokionez, bide beretik doa: garestitzea, elitismoa, kanpotiarren erostea, eta gazteen prekaritatea. Guzti honetan tokiko hautetsien erantzunkizuna arras agerikoa da, eta jendartearen (gehienbat tokikoak, abertzaleak eta ezkertiarak) den kezka eta kontzientziazte maila oso handia da.

Sozio-ekonomian, Ipar Euskal Herriaren turistifikazio izigarri altua da (300 milioi euro baino gehiago mugitzen da), eta horri begira egiten da dena: lurraren espekulazioa eta sal-eroske-

⁴ *Cortiko agiria* : 2006an Cortiko jardunaldietan egin. Frantziako Lehendakarietzarako hauteskunderi begirako aldarrikapen politiko oinarritzakoak biltzen ditu. Euskal Herriaren, Batasunak eta Abertzaleen Batasunak sinatu dute.

⁵ *Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)* : Frantziak sortutako sasi-tresna da. Euskaragintzaren aldarrikapen historikoa izan den hau, ofizialtasuna ukatzen duten politikariek hartu eta itxuraldatuta sortu dute Sarkozyren bisitarekin ondortik. Hizkuntz politika egiteko tresna publikoa, mugatua eta mugatzailea. Euskara ez dakien Brisson (UMP) jauna du Lehendakaria, eta ondoan euskararen ez-ofizialtasuna bermatzeko, suprefeta dago.

ta, lurren kalifikazioa... Sektore turistikoa beste sektoreen kaltetan eragiten du (laborantza eta industria), milaka lan postuen galtzea ekarriz (industria hetsiak - Safam, Ruwel... -, etxaldeak galduz...). Herriak ez du ahalmenik ez bide edo tresnarik horretan eragiteko, ez eta bestelako politikarik abiatzeko ere. Asimilazio prozesuaren azkartze bat gertatzen da azken urteetan.

Lan baldintzei doakionez, prekaritatearen gorakada azkarra ezagutu dugu (+% 73 azken urteetan). Gazteek ez dute Euskal Herrian bizitzeko eta lan egiteko eskubiderik. 1982-1999 tartean, 47.000 jendeak utzi dute Ipar Euskal Herria. Euskal Herriak ezin du etorkizuna prestatu horrelako baldintzetan.

Emazte eta gizonen parte hartzeak lan eremuan eta familia arduetan ezberdina izaiten jarraitzen duen arren, emazteen eskubideen aldeko borrokaren ondorioz aldaketa erranguratsuak ematen ari dira euskal jendartearen egituratzean. Emazteen lan merkaturatzea lan sektore prekarioenetan gauzatzeari da lan eskubide murriztuenak dituzten kolektiboen gehien-goia osatzen dutelarik. Halaber, horrekin batera, gero eta agerikoagoa da emazteei sexu-genero lan banaketaren ondorioz atxiki zaien zeregina, hizkuntza, kultura eta identitate transmisioan ahultzen ari dela. Errealitate hori aintzat hartzea ezinbestekoa dugu herri bezala ditugun parioei erantzuteko.

Lurraldeen arteko kohesiorik ez da. Desoreka etengabe hazten ari da. Biztanleen dentsitatea ikusi besterik ez da: Lapurdi (266,2 bizt/km²), Zuberoa (21,8 bizt/km²), Nafarroa Behera (19,0 bizt/km²). Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrak 2003an egin gogoeta batean argiki deskribatzen zen egoera: zabalkunde handia kostaldean eta entrekostan, eta apaltzea barnealdean; urbanizazio dinamika geroz eta handiago eta kontrolik gabea; "ekonomia erresiduziala"ren gairidimentsionatzea, beste aktibitateen (industria, laborantza) itotzearen arriskuarekin; higiezinaren merkatuaren "boom" a (500 agentziatik gora lanean); lurraren gaineko gehiegizko tentsioa...

Erakaskuntzan, eskolaren pribatizazio eta salmenta prozesua eman da urte hauetan. Erasoek mila aurpegi dituzte: AGCS⁶, pribatizazioak, LOLF legearekin⁷ ikastetxeak konkurritzian ezarriak, dezentralizazio neoliberalak, langileen estatutuen haustea, erabaki guzuen konplikazio eta gardentasun eskasa, TICE edo teknologia berrien hedapena... Prekaritate geroz eta handiagoa hedatu da. Geroz eta gehiago erakasleak bakazionez edo orduka kontratatuta dira. Frantses Hezkuntza Nazionalaren arabera erakastuak dira eta programek (kurrikuluma) Euskal Herriaren dimentsioa ez dute batera agertzen (ikastoletan ere geroan gutiago).

Eskolak ez du euskalduntzen. Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoan gehienik hedatua den erakaskuntza ereduak ez du euskalduntzea segurtatzen. Lehen mailan ikasleek %5a baino ez dute inmersio sistemak (%17 elebidunean). Ikasleek hiru laurdenak ez dute euskararik batera ikasten. Proporzioak are kezkarriagoak dira bigarren mailan. Euskararen familia bidezko transmisioaren hutsegitearen aitzinean, eskolak ez du betetzen hizkuntzaren

⁶ *Accord Général sur le Commerce des Services (AGCS)*: Munduko Merkataritza Erakundeak (OMC delakoa), 1994-95ean egindako hitzarmena. Serbitzuen pribatizazioa ahalbideratzen du, ondorioz, oinarriko eskubideak zalantzan emaiten dira (hezkuntza, osagarria,...).

⁷ *Loi Organique relative aux Lois de Finances (LOLF)*: Ikastetxeen diruztatzeko legea. Ikastetxeak enpresa pribatuaren gisarat kudeatuak izatera behartzen ditu (gastuen murrizketa, enpresa pribatuekin partzuergoak, konkurrerentzia ereduak...).

II.- ALDAKETA GARAIA DA

berreskurapenean bete behar lukeen papera. Ikastolak (inmertsio sistema) usu prekaritate handian bizi dira. Lanbide heziketako sailetan euskarazko erakaskuntzarik ez da. Berezko unibertsitaterik ez da.

Sektore zabalen eguneroko beharrak

Eskumen zabaleko tresna instituzionalen sortzea ez da soilik eremu “abertzale”aren eskakizuna. Jendarte sektore anitzen aldetik sentitzen den eskakizuna da. Horrela bakarrik uler daitezke azken hamarkadan ematen ari diren hainbat urrats eta planteatzen ari diren hamaika arazo.

Alta, jende askok sentimendu hau ez du naturalki lotzen oraindik gatazka politikoarekin, Herri ukazioarekin. Jendarteak ikusten eta ulertzen duena da egun guziz pairatzen duena, egun guziz gainditu behar dituen arazoak. Hau gertatzen da mugaz gaindiko harremanak naturalki garatzeko topatzen ditugun zailtasunekin : osasun arazo larriak ditugunean - Irunera edo Donostiara igorri beharrean Bordelera igortzen gaituztenean-, azpiegituren diseinuetan bizi dugun eremu geografiko naturala kontuan hartua ez denean, hemengo enpresek Hego Euskal Herriko eremuan lan egiteko edo harremanak garatzeko gabezi legal eta abarrekoen aitzinean aurkitzen direnean... Berdin gertatzen da hiru herrialdeetako eguneroko beharrei begira ere : hemengo ikasleek beren ikasketak kanpoan garatu behar dituztenean, gure gaineko erabakiak eta diru banaketak (laguntzak, inbeztizamenduak...) Paben edo Bordelen hartzen direnean, zerbitzu sozialen murrizketa erabakitzen denean, azpiegituren gaineko planak egiten direnean...

Euskal Herria da gure bizi, lan eta harreman eremu naturala, baina eguneroko bizitzan eremu horren arabera libreki eta normalki aritzeko hamaika zailtasunekin egiten dugu topo. Egoera honek eragiten duena hauxe da : kanpo zein barne arazoen aitzinean, herritarrak bitarteko eskasia handiekin aurkitzen garela. Frantziako egitura administratiboak ez die erantzuten euskal jendartearen beharrei eta arazoei.

Azken hamar urteetan “mugaz gaindiko harremanen” ugaritzea ari gara ezagutzen Baionako Ituna⁸ (1995) sinatu zenetik. Hor ditugu Baiona-Donostia Euroherria, Akitania-Euskadi Plataforma, Gipuzkoako Diputazioarekiko hitzarmenak... Hamaika urrats baina guztietan gabezi amankomuna : zein da Ipar Euskal Herriko interlokutore instituzionala ? Nehor. Hitzarmenak Erregioarekin egiten dira, edota frantziar egitura soila direnekin. Euskal herritarrak ez dugu ahotsik, ez dugu erabakitzerik, ez gara ordezkatuak.

Berdin Europaren ikuspuntutik ere. Mugaz gaindiko harremanetan elementu ekonomikoen eragina argia da : Europa mailan Euskal Herriak garapen eremu naturala osatzen du (Bilbo-Donostia-Baiona kosta hegia) eta hala hartua da. Gainera, bere izaera propioa, bere identitate kulturala, historikoa,.. horren aktiboak dira. Eremu honek tresnak eskatzen ditu, egiazkoak, eraginkorrak. Herriaren hitza eta erabakia bermatzen dutenak. Aldiz, zer dugu ? Hamaika tresna partzialki aritzeko, ahalmenik gabekoak,.. Horren adibide gisa, “Akitania-Euskadi elkarlan protokoloa”ren asmoan (Akitaniako Kontseilu erregionala, Pirinio Atlantikoko Prefektura, Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorra..) holako deskribapenak aurkitzen ditugu: koordinazio eta informaziorako organo amankomuna, erabakitze ahalmenik gabe, nortasun juridiko edo moralik gabekoa, aitzin kondurik gabekoa,.. eta “Conférence euro-régionale” izena izan den duena.

⁸ *Baionako Ituna* : 1995an sinatu zen Espainia eta Frantziaren artean. Mugaz gaindiko lankidetzari buruzko Hitzarmen Marko Europarraren aplikazioa errazteko urrats gisaz aurkeztu zen. Mugaz gaindiko lankidetzaren bidezko esparru juridiko egokia eman nahi zaie lurralde erakundeek.

Ipar Euskal Herri mailako instituzionalizazioa beharrezkoa da, ezinbestekoa, barne artikulazioa zein garapena bermatzeko eta Euskal Herriko beste herrialdeen instituzioekin berdintasun mailako harremanak izaitzeko.

Ezker Abertzaleak eguneroko arazoei alternatiba egingarriak aurkeztu nahi die, eta ondoan eguneroko arazo guzi horiek Herri gisa jasaiten dugun zapalkuntzarekin duten lotura agerian utzi. Jendarteak bere buruari galdegin behar dio zendako Ipar Euskal Herrian ez ditugun eguneroko arazoei erantzun zehatzak antolatzea ahalbide dezaketen instituzio eta esku-menik.

Hiru herrialdeen instituzionalizazioaren eztabaida, horren izenaz haratago, eguneroko arazo ezberdinei erantzuteko behar ditugun eskumenen zehaztapenean deklinatu behar da.

Sasi eskaintzen muga objektiboak

Aipatutako behar guziei Estatuak sasi eskaintzekin erantzuten segitzen du, ikusi dugun bezala. Pays Basque 2020 aipatu dugu, baina hor dira ere Euskararen Erakunde Publikoa, "Établissement Public Foncier Local"⁹, SUAT¹⁰, eta gisa bereko jukutriak.

Politika horrekin Frantziak frogatu nahi du Euskal Herrian inolako gatazkarik ez dela eta estatuaren egungo tresneri instituzional, legal eta abarrekin tokiko beharren kudeatzeko aski dela.

Baina ez da hala gertatzen eta mugak oso agerikoak dira. Beti prefetaren begibistapean egiten den lan guzia, frantziar legalitate eta interesaren "filtroa" pasa behar du gauzagarria izaitzeko (finantziazioa izaitzeko adibidez). Diagnosiak egin, ondorioak atera, lan ildoak proposatu eta adostu, finantziazioa eskatu, beti guti erdietsi... eta erabaki? Noiz ahal izango dugu ziklo osoa gure eskutan izan? Noiz arte porrosken eske?

Gure Herriaren ukazioa defendatzen eta bermatzen dutenek sasi-tresna horien arduradun nagusiak dira. Guretzat, gune guzti horiek kontraerrana bere baitan daramate, bere izaerara, sasi-tresnak direlako, tresna ukatzaileak direlako, Euskal Herriaren ezagutza eta onarpenean oinarrituak ez direlako.

C) Gure geroa : Herriaren borroka eta Herri Eraikuntza

Horago deskribatu estatuaren jarrera euskal galderekiko frustrazioa eta etsipena sortu dute euskal jendartearen sektore zabaletan. Logika osoarekin hainbat jenderen buruan dabilen kezka hauxe da : egin duguna eginik, mespretxurik besterik ez badugu hartzen, zer egin behar dugu? Ba ote da perspektibarik aitzina egiteko?

Ulergarria bada ere holako mespretxu jarreraren eragina, arazoa ez da hor bukatzen. Euskal Herriaren bizi nahiak hor segitzen du eta historian zehar frogatu dugun bezala, aitzina egitea posiblea izateaz gain, ezinbestekoa zaigu. Baina gakoa da nola eta zer bidetik egin behar dugun aitzina.

⁹ *Établissement Public Foncier Local (EPFL) : Tokiko kolektibitateendako urbanizatzeko lurren erdiesteko sasi-tresna da. Herriko Etxeek eskatuta, lur eremuak erdiesteko eta hauen eskutan uzteko prozedura kudeatzen du (erosiz, bortxaz hartuz...).*

¹⁰ *Service d'Utilité Agricole Territorial (SUAT) : Pyrenées Atlantiques.eko Laborantza Ganbararen «antena» Ipar Euskal Herrian. Urteetan Laborantza Ganbara bat ukatu ondotik, Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aitzina-mendua ikusirik, itzala egiteko sortutako sasi-tresna.*

II.- ALDAKETA GARAIA DA

Zentzu horretan, aitzina egiteko azpimarratu behar dugun lehen baldintza borroka egiteko grina berreskuratzea da. Gatazkaren konpontzea eta Herriaren beharren asetzea ez da etorriko zerutik edota frantziar Estatuak ez duen eskuzabaltasunetik. Beraz, lana eta borroka-aren bidez erdietsi beharko dugu. Horrela egin genuen ikastolen sortzearekin eta beste tresna anitzekin, eta horrela egingen dugu etorkizunean. Herri antolaketa eta sektorekako borrokak piztu, lagundu eta eraginkor bilakatzea izan behar du gure lan ardatz nagusia.

Bigarren baldintza behar ditugun tresnak guhaurrek eraikitzen hastea da, nehoi (are gutiago gure oinarrizko eskubideak ukatzen dizkiguten horiei) baimenik eskatu gabe, eta egungo koadro juridiko-politikoek inposatzen dizkiguten mugen baitan ito gabe.

Hirugarrena, lan eta borroka hauek Euskal Herriaren perspektiban kokatzea, hori baita gure eremu naturala eta soluzio eraginkorrak bermatuko dizkiguna. Euskal Herriaren logika honetan, berebiziko garrantzia hartuko du nazio elkarlanak eta elkartasunak.

Laugarrena, indar biltze berri bat abiatzearen beharra, aipatutako irizpideetan oinarritua eta aldarrikapen instituzional sendo baten inguruan. Prozesu Demokratikoaren garapena ekarri beharko du guzi honek.

Borroka eginez behartu dugu Estatuasi tresnen bidea irekitzera

Hasierako atalean azaldu dugun bezala, Frantziar Estatuaren “kontzertazio” desmartxa abiatu zenean, nahikaria onean eta Euskal Herriaren aitortzan oinarritua egon beharrean, abertzale eta herri sektoreen borroka azkarrari erantzuteko eta indargabetzeko entsegua izan zen.

Hala diote beraiek ere “Pays Basque 2010” kokatzen dutenean : *“erresistentzia pasibo edo ekiletik jarrera positibora aldatzeak bilakaera sakon bat adierazten du euskal gizartearen pentsamoldean”*.

Asimilazio politikari buru eginez, indarrak abian ezarri eta mobilizatuz, egiazko arazoak non diren argiago erakusten da, eta hau da lehen baldintza, ezinbestekoa, soluzio zuzen eta egokiak erdiesteko. Garaian erdietsi genuen Estatuaren posizioa mugitzea, horretan sakondu behar dugu.

Lizarra-Garazin Eraikuntza Nazionala urratzen hasi ginen

Lizarra-Garazik¹¹ urrats biziki inportantea suposatu zuen gure Herriarentzat, Euskal Herriak Nazio bakar bat osatzearen aldarrikapenean inflexio puntu garrantzitsua markatu baitu. Historian zehar, aspaldian gertatu ez zen bezala Euskal Herria bi estatuak banatzen duten Herri bat bakarra denaren pertzepzioa finkatzea erdietsi du, bereziki Europaren aitzinean. Honekin batera, Lizarra-Garazin burujabetzari buruzko bidean perspektiba argi bat markatu dugu : Nazio Eraikuntzaren estrategia. Nazio Eraikuntzan urratsak emanez, hau da, gure Herriaren geroa eraikitzen hasiz gauzatuko dugu funtsean Euskal Herriak bere geroaz erabakitzeko duen eskubidea.

Eta bide horretan, urrats konkretu bezain garrantzitsuak emaiten hasi ginen, Eraikuntza Nazionalaren bideragarritasuna eta potentzialitatea erakutsiz. 1998an Euskararen

¹¹ *Lizarra-Garaziko Adierazpena* : 1998an sinatutakoa. Herri Batasunak abiatutako “Irlandako Foroa” gogoetaldi dinamika zabalaren ondorioa izan zen. Euskal Herriko eragile anitzek gatazkaren azterketa eta definizioa egiten dute, “historikoa eta iturri eta izaera politikoa duela” baieztatuz, eta konponbide politiko demokratiko baterako ardatzak finkatzen ditu.

Ipar Euskal Herriarendako proposamen politiko-instituzionala

III.- PROPOSAMEN POLITIKO-INSTITUZIONALA

Kontseilua¹² sortu genuen. Urte bat berantago Euskal Herriaren lehen instituzio nazionala martxan ezarri zen : Udalbiltza¹³.

Herriak behar dituen tresnen eraikitzea posiblea da : EHLG

Adibide zehatz eta gauzagarria ikusteko parada izan dugu azken urtean. Frantziako Gobernuaren jarrera higidaitzaren aitzinean, ELBren eskutik abiatu Euskal Herriko Laborantza Ganbararen ekimenak, ongi kokatzen ditu aurkitzen garen egoeratik jalgitzeko hartu beharreko norabidearen ezaugarriak. Erran bezala :

- Frantziako administrazioaren mugimenduen beha gelditu gabe, eraikuntzaren ildoan lehenetsi behar dugu. Ipar Euskal Herriko egoera iraultzeko ezinbestekoak diren tresnak euskal herritarrek eraikiz.
- Tresna horiek nazio elkarlan eta elkartasunean sakonduz eraikiko ditugu. Izan ere, soilik Euskal Herri guziko indarren metatze eta aktibazioak du eraikuntza ildoan ahalbidetzen.
- Lurraldetasunaren ikuspegian sakontzea ezinbestekoa da, nahiz eta fase ezberdinak tartekatuta beharko ditugun.

Herri eskubideen gauzagarritasuna Europan : Irlanda, Montenegro

Autodeterminazioa eta beste Herri eskubideen gauzagarritasunaren inguruan eztabaida egiten denean, usu entzuten dugun argumentazioa da eskubide horiek ez direla existitzen, edo ez direla inolako ordenamendu juridikoan biltzen, edota kolonientzat zela, edota uhar-te diren kolonientzat, edo eskakizun irrealak dela, idealismo hutsa... Funtsean, oinarritzko eskubide hauen ezinezkotasunaz konbentzitu nahi gaituzte.

Alta, adibide biziki zehatzak ezagutzeko parada izan dugu. Lehena, Irlandan garatzen ari den prozesua dugu, Herri eskubideen aitortzan oinarritua. Bigarrena, 2006 urtean berean ikusi duguna, Montenegron egin den erreferendumarekin. Azken honetan, Europar Batasunak eskubide hau onartu ez ezik, zuzen zuzenean inplikatu da eskubide honen ari-keta praktikoa arautuz edo baliogarri hartzeko baldintzak ezarri.

Irlanda eta Montenegroren ariketekin hainbat elementu argi agertu dira :

- Europan berean arazo nazionalak egon badirela.
- Arazo nazional hauei buru egiteko autodeterminazio eskubidea giltzarri dela.
- Gatazka politikoak printzipio eta molde demokratikoen bidez konpondu behar direla.
- Europan Herrien independentzia erdiestea posiblea dela.

III.- PROPOSAMEN POLITIKO-INSTITUZIONALAREN IZAERA ETA GAKOA

Hausnarketa honi segida emaitzeko, Ezker Abertzaleak bere proposamen instituzionala

¹² *Euskararen Kontseilua : 1998an sortua. Euskarak garapen osoa izaitzea helburu duten jendarte eragile anitzen bilgunea da. Euskararen normalizazio prozesua areagotzea da Kontseiluaren eginkizuna.*

¹³ *Udalbiltza : Euskal Herriko Herriko Etxe eta Herri hautetsien Biltzara da, 1999an sortua. Euskal Herri mailako lehen instituzioa da. Lurraldetasunaren onarpena oinarri eta nazio eraikuntza eta artikulazioa xede ditu.*

III.- PROPOSAMEN POLITIKO-INSTITUZIONALA

zehazten du txosten honetan. Bertan islatzen den bezala, Institutuzio Proposamena ez da zerbait isolatua, ildo politiko osoaren zehaztapenaren baitan kokatzen baita, hartan hartuz bere zentzu osoa. Bide batez, fase berri baten irekitzearen beharraren logikan kokatzen den heinean, borrokarako proposamena da, indarrak biltzeko eta elkarlanerako deia da.

Honen baitan, zera azpimarratu nahi dugu :

A) Proposamena Euskal Herriko Prozesu Demokratikoaren logikan kokatzen da

Proposamen honen abiapuntua Euskal Herria nazioa dela eta, zentzu honetan, burujabetasuna beharrezkoa duela da.

Euskal Herrian, gatazka historikoa eta politikoa gainditzea ahalbidetu behar duen prozesu politiko bat bere gorabehera eta zailtasun guziekin garatzen ari da. Prozesu honen bidez, Euskal Herriaren ezagutza eta doazkion oinarritzko eskubideen onarpena eta gauzagarri egiteko bermea eman beharko da. Prozesu honetan Frantziak ez du bere burua inplikatu nahi izan (Espainiaren "laguntzaile" paperaz haratago), egun ez baitu inolako nahikaria politikorik Euskal Herriaren ezagutza logika batean sartzeko.

Hala ere, Euskal Herria eta Frantziaren artean gatazka politikoa egon badago, eta konponbide logika batean sartu beharko du bihar ala etzi. Honen konponbiderako irizpide politikoa Espainiarekiko planteatzen diren berdinak dira, ezinbestean : Euskal Herriaren onarpena eta Herri honen hitza eta erabakiarekiko errespetua.

B) Proposamena, Independentziari buruzko bidean, trantsiziorako urrats gisa ulertzen dugu, horretarako gutieneko aldarrikapenak bilduz

- Gure helburu estrategikoak argiak dira : Euskal Herria batua, independente eta sozialista nahi dugu erdietsi, gizon eta emazteen bizi, parte hartze eta erabakitze eskubide eta aukera berdintasunean garatzeko bermeak ezarriz. Helburu horiek erdiesteari begira egiten dugu borroka, nazio eraikuntza estrategiaren logikaren baitan.

Nazio eraikuntza egunez egun burutzen den lana izanik, ezinbestekoa zaigu aitzin urrats sakonak ematea ahalbidetuko duen bestelako koadro politiko eta juridikoa erdiestea. Euskal Herriaren aitortzan oinarrituko den koadroa, alegia.

Proposamena, gure helburu estrategikoak erdietsi bidean, gaurko egoeratik abiatu beharreko lehen urratsen zehaztapena da. Horrela, Euskal Herria estatu independentea lortze bidean emanen dugun pauso taktiko bezala ulertzen dugu. Prozesu mailakatua izanen dela hobetsirik, Ipar Euskal Herriatik begiraturik premiazko lehen urratsa izanen da.

- Euskal Herriak Herri gisa eta euskal herritarrek dituzten oinarritzko beharrei aterabidea emateko ezinbesteko minimoak biltzen ditu Proposamenak. Pairatzen dugun antolatze eta erabakitze gabeziari erantzun zehatza eta egingarria da. Ezinezkoa da pentsatzea hortik beherako planteamenduekin ahal izanen dela euskal gatazkari irtenbide erreala eta bideragarri ematea.

Euskal gatazka gainditzeko egiazko gakoei eman behar zaie erantzun positiboa. Bide hone-tatik, euskal eragileen arteko aitzineko adostasunak, oinarri hauen gainean eraiki beharko dira. Euskal Herriaren borroka bidez Frantziako Gobernuarekin egun batez negoziazio biderik irekitzea erdiesten dugunean, edozein akordiorako gutienez hobetsi beharko den edukien bilduma da.

IV.- IPARR EUSKAL HERRIARENDAKO AUTONOMIA

Bestelako eduki apalagoak, Euskal Herriaren ezagutzan eta bere nahikaria liberearen errespetuan oinarrituak ez badira, nahikaria erregionalista bati erantzuteko balio lezakete, baina euskal gatazka bere horretan segituko zuen, Euskal Herriaren benetako beharren kalterako.

C) Proposamenak, eguneroko arazoei aterabidea emaitako, ezinbestekoak diren eskumenak, ahalmen ekonomiko eta botere politikoa aldarrikatzen ditu

Koadro juridiko eta instituzional baten aldarria egiten dugunean, honen edukiaz aritu behar dugu ezinbestean. "Euskal Herriak du hitza eta erabakia" diogu, eta horrek erran nahi du koadro instituzional honek hitza eta erabakia bermatuko dituen gutieneko eskumenak barnebidu behar dituela.

Tresna instituzionalak ahalmen edo baliabide nahikorik izan beharko ditu egin beharreko bidea egin ahal izaiteko, euskal herritarren, emazte eta gizonen, eguneroko arazoei aterabidea emaitako, Euskal Herriaren biziraupena bermatzeko. Logika honetan, ezinbesteko lehen ahalmena, ekonomikoa eta fiskala izan beharko du.

Horrek ere erran nahi du koadro instituzional honek ahalmen legegilea aurreikusitako beharko duela eta berdin ere botere exekutibo bat.

D) Proposamena jendarte eredu berri baterako tresna izanen da

Ezker Abertzaleak instituzio proposamena egiten duenean, hau hiru zentzutan ulertzen du : independentzia nazionalerako eta jendarte sozialista baterako bidean urrats gisa. Baita emazte eta gizonak eskubide eta aukera berdintasunean aritzeko baldintzak ezartzeko urrats gisa.

Koadro demokratiko baten erdiesteak ahalbidetuko du proiektu politiko guztiak, ezker abertzalearena barne, gauzagarriak izaitea. Jadanik trantsiziorako marko horrek, egiazki demokratikoa izaiteko, hainbat edukin barnebidu beharko ditu.

Prozedura herrikoi eta parte hartzaile baten ondorio izan beharko du. Eta bere baitan oinarritzko elkartasun baloreak islatu beharko dira, euskal jendarte kohesionatu baten erdieste-ari begira. Horretan, egun sustraiturik diren sexu-genero bereizkeriak gainditzeko engaiamendu eta neurriak beharko dira.

Euskal Herriak behar dituen eskumenen artean, sozial arlokoak ez dira garrantzi gutien dutenak, are gehiago aipatu dugun europar testuinguru murriztailean, eta horregatik ezinbestekoa zaigu horien gainean ere, hemen, hitza eta erabakia izaitea.

IV.- IPARR EUSKAL HERRIARENDAKO AUTONOMIA

Proposamen honek iragan hurbilean egin diren hainbat proposamen politikoetatik edaten du, azkena Nazio Garapen Biltzarraren Instituzio Lan Taldearen ekarpena delarik, eta hainbat irizpide politiko egungo egoera politikoan proiektatzea bilatzen du.

Xedea, irizpide hauen inguruan ahalik eta indar gehien biltzen joatea da, gure Herriaren eskubideen berreskurapenean aitzina egiteko. Beraz, gure Herriaren ezagutzaren aldeko borrokan fase berri bati hastapena eman nahiko genioke tresna honen laguntzarekin.

Horrela, Ezker Abertzaleak 2007 urte honen hastapenean, Euskal Herriak Frantziarekiko duen gatazka politikoa gainditzeari begira, Proposamen Politiko-Instituzional hau aurkeztu du :

A) Frantziar Estatuak Euskal Herriaren existentzia aitortu behar du

Frantziar Estatuak gatazkaren eragile izanik, ezinbestekoa da aurrekari gisa, izaera ukatzailer horren aldaketarako nahikaria argia egoitea.

Gatazka gaindituko duen bidea egin ahal izaitzeko, ezinbestekoa da Frantziak bere jarrera funtsez aldatzea. Ukazioan oinarritu asimilazio politikak, tokia utzi behar dio eskubideen onarpenari, eta hauek libre eta demokratikoki garatzeko dinamika bati.

Frantziar Estatuak Euskal Herriaren existentzia aitortu behar du eta euskal herritarrek heien etorkizunari buruz, adostuko duten moduan, erabakiko dutena errespetatu.

B) Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa barnebilduko duen eskumen zabaleko Instituzio bat behar dugu : AUTONOMIA bat

Autonomia hau, oinarri politiko argien gainean eratu beharko da.

• Euskal Herriaren aitortza

- Euskal Herriak Nazioa osatzen du.
- Euskal Herriak subirautza politikoa bereganatzeko eskubidea du.
- Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta nazionala euskara da.

• Autodeterminazio eskubidea

- Euskal Herriari, nazioa den heinean, askatasunez bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea doakio.
- Euskal herritarrek Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzeko eskubidea dute.

Autonomia hau, elementu hauen gainean osatu beharko da.

• Lurraldea

Autonomiaren lurralde esparrua Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa diren herrialde historikoak mugatutakoa izanen da.

• Euskal hiritarren funtsezko eskubideak

Autonomiak, bai norbanako mailan, bai bere nortasuna garatzen duen jendarte egituretan ere, pertsonaren, gizon eta emazteen, oinarritzko eskubide guztiak baietsi eta bermatuko ditu.

• Demokrazia parte hartzailea

Autonomiak baiesten duen demokrazia ereduak, euskal herritarrei beren funtsezko eskubideen egiazko jarduera bermatzeko, parte hartzean du lehentasunezko eta funtsezko oinarria. Demokraziak funtsez parte hartzezkoa izan behar du, ordezkaritazkoa ez ezik. Honekin batera, sexu-genero bereizketaren ondorioz emazteen parte hartze eta erabakitzean den gabezia gainditzeko neurriak hartu behar direla.

Honekin batera, garrantzi berezia emaiten diogu herritarren informazio eskubideari, hauen petizio eskubideari eta herri galdeketa erabakiorrak antolatzeko aukerak irekitzeari marko juridiko berri honen baitan.

C) Euskal Herriko Autonomiak berezko botere publikoak behar ditu : exekutiboa eta legegilea

- Botere legegilea : Ipar Euskal Herriko Biltzarra

Ipar Euskal Herriko Biltzarra izanen da Euskal Lurraldearen botere organo gorena.

Ipar Euskal Herriko Biltzarrari doakio legegintzako boterearen jarduera, Euskal Lurraldearen Proiektu Orokorren eta hauen kontuen onespena, Gobernuko Lehendakariaren hautatzea eta kargutik kentzea, Lurralde Autonomoaren eraldaketa eta egin beharko den Autonomiaren Legeak luza diezaiokeen beste guziaz.

Ipar Euskal Herriko Biltzarreko kideak, herritarrek zuzenean hautatuko dituzte, aukeraketa sistema proportzional baten bidez.

- Botere exekutiboa : Ipar Euskal Herriko Gobernu Kontseilua

Lehendakaritzak eta Kontseilaritzek osaturik dagoen Ipar Euskal Herriko Gobernu Kontseiluari doakio botere exekutiboa.

Ipar Euskal Herriko Biltzarraren ordezkariak iraunkorra den heinean, Gobernu Kontseiluko Lehendakaritzak izanen du Lurralde Autonomoaren ordezkariak Estatu frantseseko organoen aitzinean.

D) Euskal Herriko Autonomiak Eskumen koadro nahikoa izan behar du

Asimilazio eta desitxuratze politikari itzulia emaitzeko, eguneroko arazoei aterabidea emaitzeko, Euskal Herriko trantsizio koadro instituzionalak funtsezko eskumen eta ahalmenak izan beharko ditu.

- FISKALITATE GAITASUNA ETA AITZIN KONDU NAHIKOA

Gure geroa gure eskuetan izaitzeko, dirua behar dugu. Dirua izan eta dirua nola banatzen den erabakitzeke aukera osoa. Ipar Euskal Herriko Autonomiak bere eskumenen erabilpenari dagozkion diru iturriak edukiko ditu. Honek, fiskalitate propio baten edukitzea suposatzen duelarik.

Euskal Herriko Autonomiak zerga erregimena eratu, atxiki eta arautzeko, eta bere "trésor public" delakoa edukitzeke berezko eskumena izanen du.

Euskal Herriko Autonomiak, aitzin kondu publikoak finantzatu ahal izaitzeko, zor publiko eta bestelako pasiboak emititu ahal izanen ditu.

Euskal Herriko Autonomia eta frantziar Estatuaren arteko zerga alorreko harremanak, hitzarmenaren bitartez arautuak izanen dira.

- EKONOMIA ARLOKO ESKUMENAK

Euskal Herriko Instituzioa behar dugu, tokiko sektore ezberdinen artean elkarloturiko Euskal Eremu Sozio-ekonomikoa bultzatzeko. Honen helburua da garapen orekatua, sozia-

IV.- IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO AUTONOMIA

la eta ekologikoa erdiestea, aberastasunaren banaketa egoki bati esker, biztanle guzien bizi kalitatea hobetzeko.

Ekonomiaren plangintza, Euskal Herriko Institutioaren eskumena izanen da : Sektore publikoa bultzatzeko, erabateko enplegua sustatuko duen politika garatzeko,...

Egungo Garapen Kontseilua, Autonomiaren legearen bidez, Ipar Euskal Herriko Ekonomi eta Sozial Kontseilua bilakatuko da.

1- SEKTORE PRODUKTIBOAK

Euskal Herriko Autonomia behar dugu sektore produktiboen gaineko plangintzak egiteko, sektore hauen indartzea bultzatuz, lurralde ezberdinetan sektore bakoitzaren hedapen egoki eta orekatua bermatuz, azken honetarako, egoera nekeago batean diren eskualdeen aldeko "diskriminazioa" eginez.

Sektore hauetan behar ditugu izan eskumenak :

- Industria
- Merkataritza eta eskulangintza
- Laborantza
- Arrantza
- Turismoa

Eskumen hauei begira Ezker Abertzaleak, irizpide hauek aitzinatzen ditu :

- Euskal Herriko Autonomiak laborantza eremuaren politikaren garatzeko Euskal Herriko Laborantza Ganbararen sortzea aitzinikusi beharko du. Horrela, egun sortua denaren onarpen eta kokapen legal osoa ahalbidetu beharko du.
- Turismoaren sektoreak Euskal Herriko gaur egungo ekonomian zein garapen sozialean duen garrantziaz jabeturik, Euskal Herriko Autonomiak aktibitate honen gaineko plangintza egin eta, Euskal Herriaren ezaugarri eta benetako behar zehatzen arabera, lehenetsunak ezartzeko eskumena izan beharko du.
- Euskal Herriko Autonomiak, Turismoaren jarduera eta garapena interes publikoaren arabera izaitzea bermatzeko balio beharko du. Honek erran nahi du aktibitate honen garapen kontrolatua bermatzea, eta Herri bizimolde, kultura eta garapena sozio-ekonomikoaren gaineko eragin motaz etengabeko segimendua, hausnarketa eta arautzea bermatzea.

2- LURRALDE ANTOLAKETA

Ekonomiaren plangintza orokorraren barruan, Euskal Autonomia behar dugu baliabide natural, lurraldearen antolaketa eta ingurunearen defentsa gaiekiko eskumena izaitzeko. Horren helburua, baliabide naturalen arazoizko erabilera eta ingurunearen kudeaketa bermatzea da, jendarteari erabilgarri zaizkion ondasunen ekoizpenean euskarritutako testuinguruan.

Lurraldea antolatzeko eskumen honetan sektore guziak sartuko dira : itsasertza, kontinente eta itsas urak, mendiak, meatzeak, trenbideak, edonolako garraioak, elektrifikazioa, aireportuak, heliportuak, portu eta kaiak, errepideak eta gainerako bide-azpiegiturak.

IV.- IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO AUTONOMIA

Jendarte eragile eta herritarren iritzia lurraldearen antolaketaren inguruan garrantzi handikoa da. Iritzi, parte hartze, nahiz eztabaidarako beren bideak izan ditzaten, Euskal Institutuzioak beharrezko bitartekoak antolatu eta ezarri beharko ditu.

Garrantzi handiko gai eta proiektuen inguruan, informazio eta eztabaida publikoaren arautzea eginen da, eta baita instituzio publikoek Herri Galdeketak antolatzeako aukera edota betebeharra ere.

Atal hauetan behar dira eskumenak :

- Lurralde antolaketa
- Komunikazio eta garraioak
- Etxebizitza
- Ingurumena
- Energia

Eskumen hauei begira Ezker Abertzaleak, irizpide hauek aitzinatzen ditu :

- Euskal Herriko Autonomiak komunikazio azpiegitura guztientzat, aireportuak, trenbideak, itsasportuak, eta abar, beti nazio ikuspegi orokorrez aritu beharko da, elgarren osagarritasuna kontuan hartuz eta lehenetsiz, modelo koherente eta orekatua garatzeko.
- Pertsona orok bere beharren arabera eta duintasunezko etxebizitza izan, erabili eta gozatzeko duen eskubidea aintzat hartu beharko du, horrek beselako eskubideen gozatzean inolako murrizketarik ekarri gabe.
- Euskal Herriko Autonomiak honelako eskumenak izan beharko ditu :
 1. Etxebizitza publikoak egiteko izanen diren lur eremuen definizioa edo zehaztapena, lur hauek interes publikoko gisa jotzea, eta horien balio ekonomikoaren finkatzea.
 2. Merkatuan sartuko ez liratekeen lur eremu eta etxebizitzak zamatzen dituzten mekanismo fiskalen ezartzea.
 3. Erakunde finantzierotan eta etxegintza sektoreetan eskuhartzea, etxebizitza publikoaren azken prezioa apaltzeko helburuaz.

3- LAN HARREMANAK

Euskal Herriko Autonomia behar dugu langileen eskubideak bermatzeko lege bidez, nazioarteko itunetan funtsezkotzat hartuak direnak, gutienez, errespetatuz.

Autonomiaren bidez, euskal legeri laborala garatu beharko dugu, zera bermatzeko :

- Elkartzeko, biltzeko, sindikatetan kideatzeko, negoziazio kolektiboak burutzeko eta greba egiteko eskubideak.
- Enpresen ekonomi eta finantzial informazioa langileen ordezkariak ezagutzea ; baita lan kontratu, segurtasun eta higiene plangintza eta neurri, administraritza laboralaren zehar-espeditze eta enpresen diziplina neurrien kontrola ere.
- Enpresa publikoen kudeaketan pertsonalagoaren ordezkartzaren partaidetza eta, enpresa pribatuetan, Administrazio Kontseiluetan bere presentzia.
- Oinarrizko diruztatzea, sindikaten egiazko ezarpenaren arabera.

IV.- IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO AUTONOMIA

- Lan eta jendarte segurantza gaiak erasaten dituzten aholkularitza eta erabaki organismoetan, enpresarien eta langileen ordezkartzaren partaidetza instituzionala.

Euskal Herriko Autonomiak, behar diren neurriak hartuz, zera bermatu beharko du :

- Emazteentzat jarduera positiboko neurriak hartuz, laneko sexu banaketa gainditzea.
- Lanerako gaitasunik duten baina nolabaiteko ezintasunak eragotzita dauden pertsona guztiak, lan munduan integra daitezten erdiestea, ardua berezia gaitasun urritua dutenei emanez.
- Lan munduan, gazteen integrazioa bermatzea, lanpostu duin eta finkoa eskuratzeko eskubidea, erabateko enpleguaren sustapena neurrien bidez.
- Prekaritatearen kontrako eta lan baldintza duinen aldeko neurriak ahalbidetzea.

Langileen eta enpresarien ordezkartzaren arteko harremana bultzatzeko beharrezkotzat joko dituen organismo eta zerbitzuez hornituko du bere burua euskal Administrazioak.

• HIZKUNTZA, KULTURA, HEZKUNTZA ETA ESPARRU KOMUNIKATIBOA

Euskal Herriaren nortasuna babestu eta garatu behar dugu, azken hamarkada luzeetako desgaituratzeko prozesuak eragindako kalteei itzulia emaitzeko.

Autonomia behar dugu alor hauetan eskumenak izaitzeko :

- Hizkuntza
- Erakaskuntza eta lan hezkuntza
- Kultura
- Kirola
- Komunikabideak

Eskumen hauei begira Ezker Abertzaleak, irizpide hauek aitzinatzen ditu :

- Euskal Herriko Autonomiak euskara hartuko du Euskal Herriko hizkuntza ofiziala, maila eta ondorio guzietarako.
- Euskal Herriko Autonomiak, euskararen erabileraren aldeko hizkuntz politika lehentasunezko antolakuntza helburutzat hartu beharko du. Egun existitzen den Euskararen Erakunde Publikoa Euskal Herriko Autonomiaren koadro instituzionalaren baitan kokatu beharko da.
- Instituzio Autonomoak, euskararen erabilpen normala erdiesteko emergentzia-plan bat egingo du, Euskalduntze Plangintza Orokorrerako aitzin urrats gisa ; Plangintza honek hizkuntzaren erabileraren esparru eta sektore ezberdinak baliabidez – ekonomikoak nagusiki - hornituko eta jarraipenerako mekanismo eta epe zehatz eta egokiak finkatu beharko ditu.
- Euskal Herriko Autonomiak, ondokoa zehazteko, eskuduntza izan beharko du:
 1. Euskal hezkuntz sistemaren antolaketa eta egituraketa gauzatzeko.
 2. Erakaskuntzaren plangintza orokorra eta, hezkuntza gaietan, lehentasunezko beharrak finkatzeko.

3. Hezkuntz sistema bideratuko duen arautegia sortzeko.
 4. Titulu akademiko eta profesionalak zehazteko, nazioartean homologatzeko eta, helburu horrekin, oinarrizko euskal kurrikuluma finkatzeko.
 5. Ikaskuntz plangintzak, pedagogi programak eta orientabide didaktikoak eratu eta onesteko, erakaskuntza egituratuko deneko maila eta mota ezberdinetan.
- Aitzinikuspen, integrazio eta hezkuntzazko bidean, gabezia sentsorial fisiko edo psikikoak dituzten pertsonen eskubideak bermatu beharko ditu Euskal Autonomiaren koadroak.
 - Haurtzaindegitik Unibertsitaterainoko ikasketxetan – pribatu zein publiko mailan -euskararen ezagutza maila nahikoa bildua izaita bermatu beharko die Euskal Herriko Autonomiak Euskal Herriko ikasleei, horretarako egokien den ikas-eredua finkatuz.
 - Euskal Herriko Unibertsitatea sortuko da Autonomiaren eskutik. Unibertsitate honek harreman sakonak izanen ditu Nazio mailan sortu daitekeen edo diren beste Unibertsitateekin.
 - Euskal Herriko Autonomiak helduen euskalduntze eta alfabetatze saila sustatzeko, zerbitzu publiko berezi bat sortu beharko du, herri ekimenen partaidea izatekin, ikasi nahi duen pertsona orori ikasbidea segurtatzeko, bere lantokian zein kanpoan.
 - Komunikabideak, euskararen eta euskal izaita eta kulturaren berpizte eta normalizazio prozesuan bere biziko eginkizuna izanen dute. Euskararen presentzia – osoa zein progresiboa – bermatzeko bezainbeste baliabide existentzia bermatu eta sustatu beharko du Euskal Autonomiak, beharrezko diren lege eta araudiekin batera.

• SOZIAL ARLOA

Herri gisa pairatzen dugun desegituratze prozesuari beste faktore bat gehitu behar diogu : jendarte mailan eta administrazio publikoaren aldetik emaiten ari den krisia, zerbitzuen galera eta prekaritate-marginalizazio mailen areagotzea. Herri bat gara eta Herri honen baitan aniztasuna dago. Maila honetan ere tresna instituzional propioak behar ditugu, jendarte integratu, kohesionatu eta denentzat izanen dena erdiesteko.

Autonomia behar dugu alor hauetan eskumenak izaiteko :

- Osasuna
- Jendarte Segurantzza eta erretretak
- Zerbitzu publikoak
- Migrazioa
- Jendarte integrazioa
- Emazte eta gizonen eskubide eta aukeren berdintasuna

Eskumen hauei begira Ezker Abertzaleak, irizpide hauek aitzinatzen ditu :

- Euskal biztanlegoaren beharren eta interesen arabera, osasun alorreko zerbitzuen plangintza, antolaketa, kudeaketa, diruztatzea eta ebaluaketaren gaineko eskumena izan beharko du Euskal Herriko Autonomiak.

IV.- IPAR EUSKAL HERRIARENDAKO AUTONOMIA

- Euskal hiritar guztiek osasuna izateko duten eskubidea aintzat hartu beharko du Euskal Herriko Autonomiak, hiritar horiek izan dezaketen egoera sozio-ekonomiko zein lanekoa kondutan hartu gabe.
- Ipar Euskal Herriko Biltzarrak egingo duen legearen arabera, Euskal Osasun Sistema sortuko du, sistemaren sektore edota alde guztien partaidetza, eraginkortasun, barneragarritasun, dohainezkotasun, unibertsaltasun eta berdintasun printzipioekin bat.
- Euskal Herriko Autonomiak bere burua Jendarte Segurantza sistema publikoaz hornitu beharko du.
- Erabateko enplegurantz eta langabeziaren gainditze eraginkorrerantz abiatuko den politika garbia egitearren, Euskal Enplegu Institutua sortu beharko da.
- Euskal Autonomiak pentsio-erregimen guztien eraginkortasuna bermatuko du.
- Euskal Jendarte Segurantza sistema, frantziar Estatuarenarekin koordinatu beharko da hitzarmenen bidez.
- Euskal Autonomiak Euskal Herriko eskualdeen arteko zerbitzu publikoen eskaintza gutienekoa eta orekatua bermatu beharko du, egun bizitzen den oinarritzko zerbitzu hauen desagerpen progresiboari itzulia emanez.
- Euskal Herriko Autonomia jendarte esparru anitzaren gainean eratua da; errealitate hori errespetatu ez ezik, zaindu beharko du.
- Migrazio plangintza eta garatu beharreko politikak honako irizpideen arabera zehaztu beharko dira :
 1. Pertsona, emazte eta gizon, guztien arteko berdintasuna.
 2. Harrera eta babes printzipioen nagusitasuna.
- Euskal Autonomiak, jendarte eta ekonomi mailako baztertzeko egoerak zuzentzeko eta saihesteko, beharrezkoak liratekeen neurriak hartu eta garatzeko bitartekoak eman beharko ditu.

E) Euskal Herriko Autonomiak Euskal Herriaren barne artikulazioa edo ahokatzeari zehaztu beharko du

Autonomiak, Euskal Herriaren barne egituratze edo antolaketa instituzionalaren sorreraz zutabe nagusitako bat izan beharko du, herriko etxeekin batera. Koadro instituzional berriak hiru mailatako artikulazio beharri erantzun beharko dio :

• Ipar Euskal Herriko lurraldeen ahokatzeari

Azken hamarkadan anitzak dira euskal eragileek, eta Estatuak berak, burutu ditugun diagnostikoak, prospekzioak... Guzietan, hainbat konstatazio amankomun agertzen dira : lurraldeen arteko desoreka, populakuntza dentsitate ezberdina, herriko etxe gehienek gaitasun ekonomiko urria, zerbitzuen eskaintzan molde arrunt anarkikoak (lurraldeari dagokionez, moldeari dagokionez, protokolo desberdinen pilaketan), etab. Gure Herria nahi dugun eran antolatzeak aukera izan behar dugu. Gure Herri gisako arazoak, gure eguneroko arazoak... nolako tresnekin, instituzioekin erantzuten diegu ?

Ipar Euskal Herrian, sasi-tresnak (EEP, SUAT, Hautetsien Kontseilua,...), guretzat zilegiak diren tresna instituzionalak (herriko etxeak, herri elkargoak,...), eta herriak sortuta-

ko tresnak (Laborantza Ganbara,...) elgarrekin bizi dira egun. Errealitate honen aitzinean, Autonomiaren koadroan zer motako artikulazio instituzionala egon behar du ? Herrialdeen araberakoa, eskualdeen araberakoa, ala biak agian. Euskal Herriko historian herrialdeek garrantzi berezia izan dutela kondutan hartuz (Uztaritzeko Biltzarra, Nafarroa Behereko "États Généraux", Zuberoako Silvietak), uste dugu artikulazio instituzional batek, esperientzia instituzional horiek, erreferentzia gisaz, aintzat hartu beharko zituela.

Edozein kasuan, erantzunak beste galdera honen araberakoa izan beharko du : zeri erantzun behar dio artikulazio instituzional horrek ? Koherentziari, osagarritasunari, orekari, eraginkortasunari, etab. Erantzunaren arabera, molde egokien eta eraginkorre-na zein den ikusi beharko da.

Horrela, denon artean finkatu beharko dugu, Autonomiaren koadroaren testuinguruan, Ipar Euskal Herriko mapa instituzionala nola geratuko den : Herriko Etxeak, Herri Elkargoak,... eta Autonomia bera.

Guztion arteko eztabaida zabal baten bidez, hau ere argitu beharko dugu : egungo hainbat tresnekiko, erdietsi behar dugun Autonomiaren fasean, zer ? Desagertu beharko dira ? Egokitu ? Errekonozimendu osoa aitortu ? Ari gara Hautetsien Kontseilu batetaz, adibidez, edo Euskal Herriko Laborantza Ganbaraz, Euskararen Erakunde Publikoaz, etab.

Eman beharreko eztabaida zabal honi begira, kondutan hartu beharreko hainbat irizpide mahai gaineratu nahi ditugu : Ipar Euskal Herriko instituzioen artean subsidiaritate printzipioaren garrantzia ; herritarren parte hartzearen erreztea ; jendearekiko hurbiltasuna ; ahalmen ekonomiko nahikoa segurtatzea ; Interes publiko orokorraren berma.

• Euskal Herriko beste lurraldeekiko harremana

Ipar Euskal Herriko Autonomiak, Euskal Herriko beste instituzioekin (Herriko Etxeak, Batzar Nagusiak,...) harremanak izaiteko eskubide osoa izanen du.

Harreman horiekin, politika amankomunak hitzarmenen bidez adosteko eta diruztatzeko eskubidea izanen du.

Ipar Euskal Herriko Autonomiak, bizi eta harreman eremu naturala diren, eta inposatutako mugak zailtzen dituen, eskualdeen arteko harremanak sustatuko ditu. Harreman hauen printzipioak biztanlegoarekiko hurbiltasuna eta eskaini beharreko zerbitzuen eraginkortasuna izanen dira. Horretarako, tokiko tresna instituzionalen erabilera sustatuko da: partzuergoak, herri elkargoak,...

Autonomiak, berebiziko garrantzia emanen dio Nafarroa Behera eta Nafarroa Garaiaeren arteko harreman naturalei.

• Euskal Herriko instituzio nazionalakiko harremana

Euskal Herriak, nazio bat izanki, bere instituzio nazionalak sortzeko eskubidea du. Hala egin zen Udalbiltzaren sortzearekin. Etorkizunean, Euskal Herriaren nazio egituratzeko prozesuan hala segitzeko eskubidea dugu.

Autonomiak, Euskal Herriko instituzio nazionalakiko harremana izaiteko, nazio mailako politikak sustatzeko eta hauen garapenerako hitzarmenak egiteko eskubidea izanen du, eskuduntzak dituen alor guzietan inguruan.

V.- ONDORIO GISA

F) Euskal Herriko Autonomiak frantziar eta europar instituzioekiko harremana aitzinikusiko du

Euskal herritarrek Euskal Herriaren kanpo harremanak erabakitzeko eskubidea dute.

Europako Batasunaren kide da frantziar Estatuak. Euskal Herriak jasaiten duen politika eta lurralde mailako zatiketa egoerak, euskal nazio eraikuntza prozesua bi erreferentzi guneetan euskarritzera behartzen du : Frantziaren esparru juridiko-politikoan eta Europar Batasunarenean.

Euskal Herria eta dagozkion kanpoko ordenamendu juridikoen arteko harremanen esparrua ondoko parametroek zehazten dute :

- Euskal Herriak duen izaera nazionala, eta subirautea politikoa eta politika-lurralde osotasuna erdiesteko daukan eskubide osoa.
- Frantziar Errepublikaren existentzia den datu historiko-faktikoa.
- Europar Batasunak duen izaera dinamikoa.

V. ONDORIO GISA

Urratsa emaitzeko unea da. Denen artean fase berri bati hastapena eman behar diogu. horri begira Ezker Abertzaleak bere erantzunkizuna hartuz, era irekian eta lagungarria izanen delakoan proposamen hau aurkezten du.

Fase berri horren gakoak argi ditugu : ukazioa eta asimilazioa borrokatu, gatazka sortzen duten elementuen argipena eman, onarpenera eta errespetua erdietsi, eta behar dugun koa- dro instituzionala zehaztu, edukiez bete eta lantzen joan. Hortarako, elkarlana eta indar biltzea ezinbestekoak izanen dira. Baita nazio ikuspegi eta elkartasuna ere.

Bidea dugu egiteko, eta hortan perspektibaz aritu beharko dugu. Has gaitezen.

Euskal Herrian, 2007ko urtarrilean

0.- INTRODUCTION	38
I.- PAYS-BASQUE/FRANCE, UN CONFLIT POLITIQUE ET HISTORIQUE	39
A) Attitude de l'Etat Français vis-à-vis du Pays Basque : négation et oppression	39
- La négation, une constante depuis la Révolution française.	
- Les "engagements" du Parti Socialiste Français.	
- La France, acteur du conflit.	
B) Une institution aux larges pouvoirs : revendication du mouvement abertzale	41
- Proposition "Autonomia" (1993)	
- "Euskal Herria eraikitzen, etorkizunerako hautabidea"/"Construire Euskal Herria, alternative pour l'avenir" (1996)	
- "Euskal Herria eraikitzen"/"Construire le Pays Basque" (2002)	
C) Bilan de dix années de "concertation"	42
- Pays Basque 2010 et le Conseil de Développement. Concertation	
- Dynamique en faveur du département Pays Basque et Batera.	
D) Assez ! Nous devons faire face à l'Assimilation. En avant le Pays Basque!	43
- Pays Basque 2020, une démarche renouvelée	
- Assez! Nous devons commencer à construire une nouvelle phase.	
- La référence de base : la proposition de la commission Institution, du Conseil de Développement National Basque. (2004)	
- La Souveraineté, proposition politique de la gauche abertzale.	
II.- C'EST L'HEURE DU CHANGEMENT. LE PARI DE L'AVENIR : ACCEPTER ET RESPECTER LE PAYS BASQUE !	45
A) L'Etat français : un Etat jacobin et colonial en crise	45
- L'Etat français : jacobin et colonial	

- L'Etat français : un Etat en crise
- Structures périmées comme celle du département
- Lutttes des Nations niées de l'Etat français : la Polynésie, la Corse, la Kanaky...

B) Le besoin de dépasser la négation et le statu-quo actuels 49

- Nous devons faire face à la dégradation de la situation du Labourd, de la Basse-Navarre et de la Soule.
- Les besoins quotidiens des secteurs larges
- Les limites objectives des pseudo-offres

C) Notre avenir : construction nationale et lutte populaire 52

- Par la lutte, nous avons contraint l'Etat à ouvrir la voie des "pseudo-outils"
- Lors de Lizarra-Garazi, nous avons entamé la construction nationale
- Il est possible de mettre en place les outils dont a besoin le peuple : la Chambre d'Agriculture du Pays Basque
- La faisabilité des droits des peuples en Europe : l'Irlande, le Monténégro

III.- CARACTERE DE LA PROPOSITION POLITICO-INSTITUTIONNELLE 54

A) La proposition se situe dans la logique du processus démocratique du Pays Basque 54

B) La proposition est un pas transitoire qui nous mène vers l'indépendance. Cette transition se traduit par des revendications minimales. 54

C) La proposition revendique des compétences, des capacités économiques et un pouvoir politique indispensables 55

D) La Proposition politique sera un outil permettant la création d'un nouveau modèle social 55

IV.- L'AUTONOMIE POUR LE LABOURD, LA BASSE NAVARRE ET LA SOULE 55

A) L'Etat français doit reconnaître l'existence du Pays Basque 55

B) Une institution aux larges pouvoirs qui inclut le Labourd, la Basse-Navarre et la Soule nous est nécessaire : une AUTONOMIE 56

C) L'Autonomie des trois provinces nécessite des pouvoirs publics propres : exécutif et législatif 56

D) L'Autonomie des trois provinces nécessite un cadre de compétences suffisant . 57

E) L'Autonomie des trois provinces précisera l'articulation et l'ajustage interne du Pays Basque 61

F) L'Autonomie des trois provinces prévoira la relation avec les institutions françaises et européennes 62

V.- CONCLUSION 62

INTRODUCTION

INTRODUCTION

Le Pays Basque vit actuellement une période très particulière. Dans l'évolution du conflit politique qui nous oppose aux Etats espagnol et français, nous avons en effet la sensation de nous trouver devant de profonds changements. Ce n'est pas le fruit du hasard mais le résultat d'une lutte longue de plusieurs années.

De cette manière, et en lien avec la proposition faite par la gauche abertzale à Anoeta¹, les principaux acteurs basques et nous-mêmes avons avancé et agi par rapport au processus démocratique. Le Pays Basque existe. C'est à ses habitants que reviennent la parole et la décision, et cela, les Etats doivent l'accepter et le respecter. Finalement, nous voulons créer un cadre politique et institutionnel qui garantisse à toutes les sensibilités politiques de pouvoir concrétiser leurs projets.

Depuis Anoeta, et face aux tentatives menées pour enclencher un processus permettant de dépasser le conflit, la France n'a montré aucune volonté pour favoriser la résolution du conflit historique qu'elle connaît avec le Pays Basque.

Pourtant, la France constitue une partie active du conflit. Il faudra que tôt ou tard, elle renonce à être acteur du conflit et prenne part à sa résolution : ce serait ouvrir la voie pour dépasser une bonne fois pour toute le conflit politique.

Nous devons faire basculer l'Etat français vers l'acceptation et le respect du Pays Basque. Notre proposition va justement dans ce sens : préciser les fondements du cadre qui fixeront l'acceptation et le respect de notre pays de la part de Paris.

Une phase politique s'est terminée sur nos trois provinces. La voie dite de « concertation », dérivée de Pays Basque 2010 et du Schéma d'Aménagement du territoire, n'a été en somme qu'un sillon tracé pour éviter toute acceptation politique du Pays Basque. La campagne de recueil de signatures, récemment menée par la plate-forme Batera en faveur d'une consultation populaire, a encore une fois laissé apparaître la volonté des habitant(e)s des trois provinces de décider de leur avenir, ainsi que l'éternelle non-reconnaissance de la part de l'Etat français, prolongée aujourd'hui par la démarche Pays Basque 2020. La gauche abertzale le dit haut et fort : nous ne pouvons pas accepter de revivre un nouveau cycle basé sur la négation de ce pays.

Nous devons sortir de cette situation critique en ouvrant une nouvelle phase politique. Pour cela, nous devons mettre les éléments en perspective, pour que lorsque nous aurons réussi à faire avancer l'Etat français vers l'acceptation du Pays Basque, elle donne au moins des réponses aux problèmes fondamentaux de notre pays.

